


# anaitasuna

1978.EKO OTSAILAREN 1/15EKOA 356-7. ZENBAKIA · 50 PTA

3



JAIOKO DA BERRIA  
GU EZ GARA HERRIA

# HARRI BATEKIN HASI ZEN



zure aurrezkien banketxea



**BANCO DE BILBAO**

**gizaldiz gizaldi aurreratzen**



## AURKIBIDEA

3. Editoriala
- 4-5. Ohar laburrak
- 6-7. Mugimenduko prentsaren subasta ala bertako langileen alternatiba.
- 8-10. Udaletxeen elkarretak.
- 11-12. Herri batua: udal hauteskundeen begira.
- 13-14. Askatasunaren errealtatean barna: artzainen borroka-ekin.
- 15-16. Sindikal hauteskundeak.
- 17-18. Santa Agedaren bertsoak.
19. Doña Prudentzia
- 20-21. Sabinoren obrak faxistak argitaratzen ari.
22. Oraindik arradikailago behar.
24. Aingeruen sexua eta euskal aldizkariak.
25. Lehen eta bigarren mailako hilak.
26. Ostegun beltza Tunisian.
27. Sicc Mansholt edo PSOEren mehatxuak.
- 28-30. Elkar ikuska
- 32-34. Natur eremuaz (II)
- 36-38. Haurra aktibitatean hazi eta hezi egiten da (II).
- 39-40. Zinea
41. Karrera eta ni
- 42-44. Kirola
45. Irakurlearen saila
- 46-49. Gramatika
50. Sukalderako saltsak.
- 51-53. Posta
55. Gurutzegrama
56. Kaleko

Leg. Gor.: BI - 1753-1967

# GASTEIZEKO IRAKASPENA

Dena da posible Derioko plazan, fikzio guztiak gertagarri bihurtu diren Herri honetan. Eta ezinezko gauza horien artean Gasteizeko 17koa suertatu zaigu oraingoan posible. Halabeharrak holaxe jota, batzuk zerutiko aginduz edo zeukaketen manatzeko eskubidearen gaineratik, Rubial jauna irten da presidente. Vascongadetako presidente —kexatu dira zenbaitzu—, 1936.eko moduko Euzkadi burugabeko burugogora dezakete beste batzuk, baina. Elizetako kanpan hotsik ez da entzun herrietan. Kanean jendea beti bezala. Tabernetan gauza bera, “E.T.A.ko ekintza batek biharamunean zeresan handiagorik aterako zukeen”— zioen lehengoan lagun batek. Ez gaitu politikak lehen bezala tiratzen euskaldunok. Politika horrek behintzat.

Eta tartean ohorea zegoen, euskaldunon ohorea. Hori salbatzeko, noski, euskaraz jakitea eta abertzale izatea beharrezkoak ziren. Ajuria-guerrak, guttienez, analfabeto izanik ere, bestelako itxura egingo zukeen. Baina honez gero galduta gaude. A zer nolakoak esanen ditu oraingoan gutaz Tarradellasek!

Rubialek, aurretik ere, euskarak ez zuela, bere ustez behintzat, horrenbesteko garrantzirik esana zigun. Orain, presidentetu ondoren, hura zuzendu nahirik, hauxe gehitu berri digu, baietz, Consejo General Vascoko buruak euskaraz jakitea komeniko litzatekeela, ondoren, oso maleruski, hauxe gaineratuz, bai eta beste edozein hizkuntza ere. Euskaldunontzat gurea eta beste hizkuntza guztiak maila berean baileuden! Eta ondoren, Rubial presidenteak bere burua lehendakari izenez hornitu nahi duela. Zertarako gure Herriak bizitzeko eta irauteko duen eskubidea laur haizetara aldarrika, bere nortasunaren boza, erdaraz, ixiltzen bazaio?

Baina gaitzen demokratak izan! Eta zapalduok geure arazoak zapaltzaileen hauteskundeetan konpon ditzakegula onhar dezagun behingoz. Eta horretara, Gasteizen behintzat gauza bat egon da argi, gure Herriaren etorkizuna likidatu ala zuzpertzeko aukera zegoela, eta sokatira horretan zortzi aldiz —bi aldiz, itxurak gora behera— nazional problemak bildu zituela bertako guztiak. Euskal nazionalismoak abertzale ezkertiarrek eskuindarekin batzen zituen ordurarte posible gertatu ez zen fronte nazional bakarrean. Eta beste nazionalismoak, sarritan ahantziagoa baina bortitzagoa denak, PSOE, UCD eta MCeko estatalistak elkartzen zituen, intereskilde. Berriz ere klase arteko mugak gainditu zituen nazional arazoak Gasteizen.

Eta argiro ikusi zen, itsu ez denarentzat bederen, zapalduon defentsarako nazionalismoa baino nazionalismo okerragorik ba dagoela oraindik beren burua beti internazionalistatzat agertzen dutenen artean, errege, enperadore eta caudilloek konkistaturikoa, inori lapurtua, sasi guztien gaineratik eta hodei guztien azpitik gorde nahi dutenen nazionalismo xovinista, halegia. Gasteizek lezio ederra eskaini digu: Batasunean lortuko dugula euskaldunok geure helburua. Eta gero eta gehiago gara, ahoz behinik behin, helburu berbera dugunok: Euskal Herri berjabe, batu eta sozialista. Eta ez dezagun otoi ahantz, utopia guztiak posible direla, nahiz izanez gero, zorioneko Euskal plaza nagusian.



INIGO DE  
AGUIRREREN  
MISTERIOAK

Benetan misterio-  
soa dugu euskaldunok  
parlamentari hau.  
Opus-en estudioak egi-  
na eta atzorarte euskal  
munduan erabat ezeza-  
guna izan arren, PNV-  
era sartu bezain agudo,  
puzten den globoa be-  
zala igon zaigu gizona,  
euskaraz analfabeto  
izan arren, parlamen-  
tarien kultur arduradu-  
na izateraino heldu  
arte. Horixe bai dela  
karrera, mutilok! Bide  
horretatik segituz  
gero, agian laster beste  
marka bat jarriko digu,  
munduko lehen kultur  
ministro analfabetoa  
izatearena. Eta honi  
guztioni guti baderi-  
tzozue, mihi gaizto be-  
zain ongi informatuek  
hortik diotenez, gure  
Inigok lehenenak egin  
berri ditu oraintsu Ma-  
drilen euskal irakasle  
titulua emateko esku-  
bide eksklusiboa Eus-  
kaltzaindiari kentzeko,  
elizaren eta zenbait  
erakunde eskuindarren  
fabore. Misterioa ere  
ba da, ordea, hori  
guztiori PNVeren agin-  
duz ala beraren alder-  
diarekin zer ikusirik ez  
duten beste interes ai-  
tortezin eta agian fami-  
liarren alde egin ote  
duen. Dakienak argi  
guitzake.

## GALIZIAN GERTATUA

Burruka gogorra  
daramate galegoek as-  
paldion beren hizkun-  
tzaren alde. Toki asko-  
tan, bide-kaminoetako  
karteletan bereziki,  
Herriaren eskuak izen  
ofizialen idazkera arro-  
tza zuzentzen du.  
Gehienik aldatu-  
rik agertzen dena j le-  
tra da, horren lekuan x  
jarriz: San Jurjo-ren  
ordez, kasu, San Xur-  
xo. Zuzenketa kontu-  
ok baina, maiz pasadi-  
zo benetan barregarri-  
ak sorterazi dituzte.  
Hona bat.

RIANXOko taxis-  
ta batek bere automo-  
bileen Herriaren izena  
galegoz jarri zuen be-  
hin. Bertako alkateak  
ordea, eskuindar naba-  
ria izanik, ez zuen hori  
begi onegiz ikusi eta  
taxista beragana deitu-  
rik, hura espainol ba-  
tuan idazteko agindu  
zion. Gizonak zera  
erantzun zion, hots,  
galegoz Rianxo (euska-  
raz bezala irakurria)  
zela eta forma ofiziala  
(Rianjo) ez zela inon-  
dik ere egoki. Alkateak  
ez zion kasurik egin:  
"Asperturik naukazue  
horrenbeste x-ekin  
—esan omen zion—,  
zuk behintzat, agindu  
dizudana egiten ez ba-  
duzu, ez pentsa hortik  
zeure autoaz ibiltzeko  
baimenik izango duzu-  
nik". Horretara jarrita,  
taxistak obeditu beha-  
rra ukan zuen. Biha-  
ramunean, txintxo-  
txintxo, bere automo-  
bileen hauxe irakur zi-  
tekeen: RIANJO, ser-  
vicio de tajis.

P.N.V. (Euzko Alder-  
di Jeltzalea) "vuelve  
a sus posiciones más  
reaccionarias."

Hala dio PSOEk  
bere azken agiri bate-  
tan. Guk uste izan du-  
gu bere betiko tokian  
egon dela beti. Gehike-  
ria deritzogu PSOE ba-  
tek besteari honelako  
bat esatea, are gehiago  
Euskal Lehendakaria-  
rentzat euskalduntasu-  
na eskatu diolako.  
PSOEkoek Euskadiko  
lehendakariak euskara  
ere jakin dezala eska-  
tzeari "reaccionaris-  
mo" eta "racismo" hu-  
tsa deritzote. Gauza  
bera esana zuen Felipe  
Gonzalezek aspaldian.  
Euskaraz bakarrik hitz  
egin nahi dugunok fa-  
xistak omen gara. Zer  
izango dira ba berak?  
Pentsa dezakezue as-  
paldiko sozial-demo-  
krata horiek proposa-  
tzen diguten integra-  
kuntza nolakoa izan  
daitekeen. Beren bizi-  
tza osoan monolinguis-  
tak izan diren eta dire-  
nak bilinguismoaz ari  
zaizkigu mintzatzen.

Euskaraz ez dakitela,  
Franco aipatzen dute.  
Nahiz eta PSOE lasai  
etxean denboraldi har-  
tan egon, beraien mila  
eginbehar eduki dute  
frankismoaren kontra  
burrukatzeko. Zoritza-  
rrez beraiantzat, Eus-  
kal Herria, benetan  
maite izan dutenak,  
gartzelan, exilioan, lur-  
pean egon dira eta dau-  
de. Horietariko askok  
astia izan dute euskara  
ikasteko. Gero TVko  
propagandarik eta Ale-  
maniako dirurik ez  
edukitzean, betikoek  
garaitu dute nolabait.  
Ba dakigu bestalde  
PSOEk ez duela seku-  
la gure hizkuntza maite  
ukan. Egunotan, be-  
katu politiko bat eta  
taktika okerra aplika-  
tzen ari zela konturatu  
omen da. Oportunismo  
politiko batek euskara  
maite behar duela dio-  
tso, hala ere ez du ara-  
zoa oraindik ongi go-  
bernatzen: "Euskara  
ez jakitea ez da inol-  
ko oztopo bat. Gauza  
sentimentalak besterik  
ez dira" diosku. Baina  
gizonok sentimenduz  
ere eginak gaude, jau-  
nak!!



# MUGIMENDUKO PRENTSAREN SUBASTA ALA BERTAKO LANGILEEN ALTERNATIBA



Mugimendu frankistak orain artean erabili izan dituen komunikabide boteretsuak prentsa eta irriatiak subasta bidez saltzeko aurreproektua presentatu du gobernuak horretarako 45 egunetako epea ezarri.

Presako langileek, Madrilen bildurik, ordea, beste alternatiba bat aurkeztu dute mugimendua zenaren prentsa langileen esku eta demokrazia zko erakundearen kontrolpea proposatuz. Aurreproektu hori "Regionalización de la prensa del Estado" izenburuz ezagutzen da. Prentsaren kontrolpea eramane ahal izateko Patronatuak hiru adarretako ordezkariak osatuko litzateke, hategia, langileak, parlamentariak eta Estatuaren izenean herri elkarteak.

La Voz de España-Unidad-eko langileen (teknikari, periodista, e.a.) batzordeak, berriz, Euskadiko alderdien laguntza eskatu bide dute Madrileko prentsa langileen alternatibaren osagarri bezala, beste aurreproektu herrikoia go bat proposatuz.

Gobernuak Estatuko prentsa subastan saldu eta bere pribatizatzea aurrera ateratzen badu, dudarik ez, zenbait enpresa kapitalista eta alderdi boteretsu otso amorratuak bailiren periodiko bakoitzaren irentsi beharrean jarriko dira.

Alderantziz, Estatuko prentsaren langileek guzietan eta demokrazia zko prentsa baterako alternatiba hurreratu dute. Halere, Madrileko langileek proposaturiko aurreproektua, nazionalitateei baga gozkie, nahiko abstraktu eta ilun geratzen da. Alde horretatik La Voz de España-Unidad-eko langileek aurrerapauso bat eman dute. Adibidez, nazionalitate bakoitzeko Patronatu edo kontseiluan parlamentariaren adarra autonomiazko erakundearekin lot-

tzen da eta Estatukoarena, berriz, herri erakundearen ordezkariak osatua geratuko litzateke (udal asanblada, hauzo eta kultur elkarteak, e.a.).

Eta aipagarria da, baita, Pyresa albiste agentzia erdirakoia baztertuz, periodiko bakoitzak bere inguruko informaketa zuzenago bat ematearen alde agertzen dira eta eguneroko bakoitzari komentariak agentzietatik libreki baliatzea proposatzen.

La Voz de España-Unidad-eko langile batzordeak, delako alternatiba aurrera bultzatzearen Euskadiko alderdiak oro konbokatu ditu. Lehen batzarrean 9 alderdi besterik ez ziren agertu, eta UCDren ekilibrioak gorabehera, alternatibaren aldeko agiriari UCDez aparte, PSOE, ORT, OIC, EMK, PTE, EKA eta HASIk (KAS) hartu zuten parte.

Bigarren bilera lehenean hutsegini zuten alderdi batzuek agertu ziren, bai ezker abertzale eta estatualista. PNV ez zen agertu. Bigarren bilera honetan ukitu ziren gorabeheretarik aipatzekoa da alderdi sail guztiak La Voz de España eta Unidad-eko langileen alternatiba onhartu zuela. PCE, EKA eta DCVek besterik gabe, egunerokoen langileei laguntzea zela oraingo zko arazo bakarra eta ekintza baterakoietara jo behar zela aipatu zuten, gerokoak gerorako utzita. HASI eta LAIAkoa eta PTEkoak langileen alternatiba bultzatzeko konforme zeuden, bai, baina baldintzapen batzuekin eta alternatiban agertzen zen konposaketa eta eskema betetzeko konpromezua eskatu zuten. Hau da, La Voz de España-Unidad-eko inizatiba hori autonomi erakundearekin eta herri elkarten ordezkariarekin lotua eta kontrolpetua gera zedin konpromezu baten alde agertu ziren.

La Voz de España-Unidad-eko batzordeak azkenik, alternatiba hura berok eginia zela, eta beraz, beren konpromezua eta ezker alderdiekin bat zetozenez Gorteetako Jauregira, Kulturarako subkomisioari ondorengo telegrama baterakoia igorri zitzaion:

"La Voz de España eta Unidad-eko batzordea PSE (PSOE), EMK, EKA, UCD-G, DCV, LKI, PTE, PSP, PCE, ESEI, OIC, ANV, ESB, HASI (KAS), LAIA (KAS), azkeneko laurak Altsatsuako Mahai-kide, ordezkariak bildurik, guztiok batean akordatzen dute:

1) Estatuko gizarte komunikabideen erakunde autonomoaren subasta edo desjabetze edo pribatizaketarako proiektu orori ezezko borobila eman.

2) La Voz de España eta Unidad-eko langileen asanbladan eratu eta onharturiko Estatuko prentsaren dezentralizapenerako aurreproiektuaren alternatibari baiezko irmo eta eginkorra eman, guzieki prentsaren demokratizapenerako baliozko eskematzat harturik".

Gainera, alderdi bakoitza bere aldetik eta herrialdez herrialde beste halamoduzko telegrama eta oharra zuzentzekotan geratu ziren, Gorteetako subkomisioan ahalik eta indarririk handienak egiteko. Gorteetako kultur subkomisioaren konposaketa, berriz, gobernuko 4k, PSOEko hiruk, UCDko hiruk, PCEko 1ek eta APEko 1ek osatzen dute. Alderdi erdirakoen menpe, noski.

Nork jakin kulturarako subkomisio horretatik aterako dena? Estatuko prentsa guztiarentzat erabateko proiektua eratu eta gero Gorteetara igaroko da, hango interesen arabera nahiko galbahatua (edo desherriratua) utzi arte.

Izan ere, autonomia seriosago bat lortu arte deus gutxi izanen dugu Euskal Herriaren zerbitzu eta kontrolpean. Dena dela, subasta eta pribatizazioa baino hobea eta pauso aurrerakoi bat ere gerta daiteke. Horretarako, ordea, delako alternatiba bai Unibertsitatean, bai langile eta hazo elkarrean eztabaidatu eta sakontzea komeni da.

Bestalde, berehala izanen ditugu Madrileko Ganbaratik berriak eta Euskadiko komunikabideak euskal langileriak eskuratu arte borrokan jarraitu beharko dugu, fronte desberdinetarik bada ere.

Herriaren gain gizarte komunikabideak duten indarra neurrigabea da. Egun telebistak, prentsak eta irratiak nahi ahala menperatzen dute gizartea. Hortik neofrankistek (UCD) gizartean duten indarra. Hortik komunikabideen garrantzia. Publizitatea Herriaren zerbitzuan jarri behar baita, eta enpresa pribatuengandik askatu. Komunikabide hauk, langileriak zuzendurik, autonomiaren erakundeari lotuak eta Euskal Herriko Telebista-Irrati-Prentsa erakunde herrikoi bat eratzen ez den bitartean deseuskalduntzen eta kapitalismo kolonizazioaren hatzamarretan larrutuak jarraituko dugu.

Alex

## IN EXTREMIS

Estatu honetako eskuindar guztien artean zihurren eta seguruen dena UCD da. Beraz, egiazko eskuindar bakarra. Beste inori ezer eskaini gabe, Estatu honetako oinharri politiko eta ekonomiko garrantzitsuenak bere eskuetan gorde nahi izan zuen Horrela pentsatu eta hala lortu egin du. Hartzeko zeuden neurriak egitan zailak baina premiazkoak izateko ziren. Ia ezinezkoak. Frankismoarekin konprometaturiko eskuindar guztiek oso fama txarra zeukaten. Estatu Batuetako eta Europako teknikariek, aurpegia garbitu eta ikuzi diete azken batez. Odola zeriona, hilherrien usteltasuna kaleratzen zuena, historiak agortu eta erditu zuena Demokrazia batek salbatuko zuen "in extremis". Demokrazia hitz misteriotsu eta magiko horrek mirariak egin ditzake. Herria gelditu, ezker ahuldu, iraultzari sekulako oztopoak eginez. Guztion ganean, kapitalea, eskuina salbatu du ohorezki Demokraziak. Baina ETA non ezarri dute aparamen horretan?. Ekintzaren ekintzaz, Estatu kolpea gogoratzen digute, beronen arriskua seinalatuz. Interesatzen al zaie Estatu kolpea? Espainiako ekonomiak jasango al du? Sufrituko al du Herriak berriro militarren bortxakeria? Irabaziko al zuen kapitaleak ezer horrekin? Dena irabazi zuenak, denok garaitu gintuenak ezin dezake permiti militar kolperik. Euskal Herriak irabazi duena burrukan aurkitu du. Harmatua eta ez harmatua. Hala ulertu da. Hitz egiteko tokirik ez dagoenean harmak mintzatzen dira. Lemoizen ikasi berria dute askok azkenengoa. ETAK demokraziari desafio egin dio, kapitalearen demokrazia, antieuskalduna den demokrazia ukatuz. Bitartean beste batzuzorionean politikabideak lantzen ari dira, kapitaleak hitzez eta harmaz burrukatzen baitu demokrazian. Politikari askok prakak galdu ditu, beste batzuk ez dituzte sekula eduki, azkenak bidea okertu dute. Politik jokorik egin beharrean iraultza mistiko bati dagozkion moduak aplikatu nahi dituzte. Politik jokoa ontzat hartu zutenek, egiazko deklarapen demagogikoak egin beharrean eskuak zikin bitzate. Politika zikina da. Zuzentasuna, Lemoizen dago bakarrik.

E. H.



# UDALETXEEN ELKARTEAK



Udaletxe zenbaitek nahiko iskanbila atera dute hartu dituzten ordenak deuseztatu nahiz, ordena horietan derrigorrez fusionatu behar zirela esaten zitzairen, Nafarroan eta Bilbon izan dira zarata gehientsuak, Nafarroako Diputazioak zeharo batu nahi ditu bertako zenbait udaletxe, Bizkaian berriz hor dabilta erandiotarrak Bilbotik apartatzeko ahalegin guztiak egiten.

Beste aldetik, ordea, hor dugu Deba Garai aldeko udaletxeen erabakia, batzea, elkartzea pentsatu dute, eskualdeari dagozkion zenbait arazoren aurrean postura baterakoa hartzea erabaki dute, batez ere zerbitzu aldea zainduz planifikazio orokorrago baten barnean jokatzeko beharra ikusi dutelako.

Zer dela eta udaletxeen elkartasunaren aurreko postura bi? Buru logikoetan zalantza sortzeko bezalako galdera, zer dela eta hiri batzuk batasun hori desonhartu eta beste batzu berak izan inizatiba daramatenak? Hemen gaurko egoera.

Gogora ditzagun datu batzu, Erandiori bere eritziak inongo inork galdetu gabe, Bilboko oligarkiaren interes primarientzat

onuragarri zelako Bilbori anexio-naturik geratu zen, ondorengo urteetan Erandio ez da existitu izan Bilboko udaletxean, honek ia ezertarako balio ez zuen "tenencia de alcaldía" edo "hauzo alkatezta" bat jarri zuen Erandion, bere zeregina zergak batzera eta beste zertxobait egitera mugatzen zen, beste gauza guztietarako Bilbora jo behar zuten erandiotarrek, hirigintza aldetik desastre haundienetarikoa da herri hau, kutsadura izugarria du, zerbitzu minimoenak ere falta ditu, egoera nigargarria dutenez ez zait batere harrigarri Bilbotik irteteko duten gogo hori.

Nafarroako egoerak ere ezaugarri bereziak ditu, begi aurrean lehenengo agertzen dena zera da: dekretu bidez inori kontsultatu gabe, goitik behera faxisten erara jarritako legea dela. Bere historiaz ez daiteke askorik esan oraindik ez baitute luzeegia, baina konstatazio bat garbia da, hirietako bizilagunak ideiarenean aurka irten direla zalantza asko gabe. Zerbaitengatik izango da.

Gainera "kasualitatez": 1) herri gehienak "montañan", hots, euskal aldean fusionatuko dira; 2) guztiaren atzean eta zere-

bro gris bezala Del Burgo jauntxoak dabil; 3) denok dakigu udal bakoitza botu bat dela, udal guttiago botu guttiago eta zenbat eta udal euskaldun guttiago hainbat botu euskaltzale guttiago.

Deba Garai aldeko prozesua beste era batekoa izan da (lehen-goiz garbi utzi behar da udaletxe nauk nahiko irekiak izan direla) udalak komeni zitzairen zerbitzuen beharra hiri maila soilean ezin dela konpondu konturatu dira, planifikazio orokorrago baten beharra ikusi dute eta beren borondateen harremanetan hasi dira, gero zenbait bizilagunen partaidegoaz zer behar zuten jakin dute, ondoren elkartzea erabaki dute. Baina herri bakoitzak bere nortasuna gorderik eta udaletxeek betiko burujabetasuna dutelarik.

Beraz, bi prozesu moeta daude hemen, lehen erakoa faxismoaren garairako tipikoa, goitik beherakoa, herrien nortasuna galaraziz aurrera eramandakoa, inolazko logika gabekoa, menperatzailea, adibidez: Erandio dekretu bat dela medio inoiz gehiago ez da izango Erandio, Bilbo izango da eta Bilboko hauzune baten izena Erandio izango da, berdin Nafarroan, Etxalar ia gehiago ez da existituko, Bera izango da udaletxea, aldameneko herriak ez dira izango Etxalar eta beste. Etxalar hauzo bihurtuko da.


Deba Garaiko eskeman koordinazioa da finkatzen dena, Aretxabaleta Aretxabaleta izango da eta Eskoriaza Eskoriaza baina erabaki zenbait hartzeko batu egingo dira eta erabakien gestioa eramateko Gerentzia komun bat ezarri dute.

Lehenengo era Erandio eta Nafarroakoa, behintzat euskal zentzuaren aurkakoa delakoan nago, euskal udaletxeek beti izan baitute edozeinekin batzeko aukera beren borondatea holakoa zenean, baina inoiz ez zuten gal-

# EUSKAL HERRIAN

kari bat ere udaletxe bateko idazkari ofiziala (hots, estatuaren funtzionaria).

Funtzionamenduaren organigrama ondorengo laukiak esplikatzeko du:



ESKUALDEko Batzarre Nagusia lehen aipatu dugun bezala, Mankomunagoa osatzen duten bederatzia herrietako kontzejal guztiek osatzen dute. Bere zereginak —bide orokorra eta exekutatzeko ordenamendua zehaztea alde

batetik eta bestetik —eskualdeak dituen beharren bilkura egitea.

Mankomunago Batza kontzejal artean aukeratua da, Estatuak diotenez 5.000 biztanletatik beherako hiriek kontzejal bana izendatuko dute, 5.000tatik 15.000tara biztanleren bitartean daudenek bi izango dituzte, 15.000tatik gorakoek hiru ordezkari bidaliko dituzte, denetara 15 kontzejal osatuko dute, Bergara eta Arrasate izango dira hiru ordezkari izango dituzten hiri bakarrak.

Garrantzi handikoa izango da ere Teknik Bulegoa, bera izango baita azken finean erabakien exekutatzailerak eta arduradun praktikoa; ondorengo laukian dago organigrama.

rako poltsak, bilketa ekipamendua, hiltegi, gaizki erabilitako larrak, albataria, artisautza, eta neurketak, kontsumatzaileentzako defentsa eta prezio zainketa.

Eta orain beste gako bat, nola ordaindu Bulego honen lanak? Honako hau erabaki dute udaletxeek, biztanleko hainbeste ordaintzea udaletxeko, orain gutti gorabehera 9'9 pezeta biztanleko irtetan da lauhilabeterakoa, Irailetik Abendura batu den diruaren kopurua 2.049.000 pezeta izan da, nahiz eta udaletxe guztiek berdin berdin ez ordaindu. Azalpena bukatzeko komeni da esatea Bergaran kokatua dagoela eta zehaztasun gehiago gura duenak bertara jo dezala.

ONDORIOZ


Ba dirudi Euskal Herriko hirien problematika soluzionatzeko biderik egokienak mankomunagoenak direla.

Hala pentsaturik ere berekiko bi beldur somatzen ditut: 1) Frantzia ere betako demokrazia burjesak eraginik soluzio berdintsua proposatu dutela udaletxeen ahultasuna gaintzeko, interesa duenak ikus beza Oliver Guichard ministrari ohia buru dela atera den "Vivre ensemble" lana, kapitalismoa eusteko nola proposa liteke metodo hau? zertarako balioko du gehiago, sozialismoa eraikitzeko ala kapitalismoa eusteko? 2) Oraindik ez da egon horrelako esperientziarik Euskal Herrian eta ez dakigu nola bukatuko den, baina zihur egon gaitzen ez dela soluzio perfektua, beti ere prest egon beharko gara kritika eraikitzailea egiteko. Euskal Herriko administral egitura Mankomunagoaren izaera eskualde politikan eta herri azterketan Euskal Herri mailan zabaldu behar den eztabaida hedatzeko kontutan hartzekoa da.

Iñaki AZKOAGA

## Arduradun Nagusia - Teknik Bulegoaren Zuzendaria

▼ (Arloak)



Ikusten duzuenek Elkarketa eta Eskuhartzea betetzeke dago, ekonomi arloan ere falta da norbait, teknik arloan ere errefortzatuak ez legozke gaizki, baina gauzak poliki poliki hobatuz joango direla dirudi. Gerentea edo arduradun nagusia Gilen Azkoaga da.

Bere zeregin batzuek aipatzekoan hauk lirateke garrantzikoak, aurrekontuak eta inbertsio zerbitzuak, monografiak lanak, eskualdeko antolabide eta planifikaketa ereduak, eskualde mailako erabakiak, subkontratak, eskualdeko hazkuntza eta moldakuntzarako informazio eta agiri biltzea.

Zeregin guzti honen lista lu-

zatekotan eta nahi bada konkretatzerakotan arlo hauk lirateke: hezkuntza, kirolak, kultur ekintzak, sanital ekintzak, kalamitate aurreko laguntza, SOS eta suak, guzti hau pertsonen dagokienean. Lurrari dagokionean hirigintza, eraiketa lizentziak, partzelazioak. Lur ahulen zainketa, bide zainketa, hidraulika eta osasungintza, kanposantu, kutsaduraren aurkako ekintzak, zakarren tratamendu eta bilketa, etxegintza erraztu eta zaindu, garraio publikoak. Ekonomi arloari dagokionean merkatal harremanak, merkatuak, betirako hezkuntza, higiene eta zihurtasuna, langile eta lantokietako zerbitzuak, lanpostuetar-





tzen beren izaera eta beti zirauten hiri berezi bezala jokatzeko.

Deba Garaiko esperientzia laburra berriz, nire uste apalean, zenbait arazoren soluzioa ematera datorkigu, euskal udalak nola baiteko elkartasuna beharrezkoa dutelako.

Mementu honetan industriadun herri guztiek zerbitzu haundiak behar dituzte, hirian bertan finkatzen ez bada zerbitzu hori hiri haundira mugitzen dira biztanleak, orduan hiri txikiak bere ezaugarrietako batzu hiri nagusi horri uzten dizkio, horrek zera nahi du esan, hiri haundietako zerbitzuen finantzatzaileak hiri txikiak izango direla.

Bestalde, industri hiri haue-  
tan plangintza orokor bat egiten  
ez bada orain daramaten hazkun-  
tza erritmuak gehiagoko aurrera-  
piderik izateko posibilitateak  
kenduko dizkio. Planifikazio ho-  
netan udalak sektore hau, mini-  
moki, kontrolatzera irits daitez-  
ke: irakaskuntza, hirigintza, hiri  
komunikabideak, hiri infraegitu-  
ra. Ikusten da ere industri haz-  
kundera planifikatzeko beharra  
(baina oraingoz urruti dagoenez  
utz dezagun) honetarako datu in-  
dikatioak eman ditzake.

Udaletxe batek hori bere domeinuetan egin dezake baina hori arriskugarria litzateke zeren hiri bat saturatua gera daiteke baina handik hamar kilometrotara dagoena, behar bada, gehiago hazteko posibilitateekin egon daiteke. Planu teoriko hau asko luza daiteke.

Kultur eta aisi bizitzak ere bere garrantzia du, kultur bizitzarako hiri idealak 150.000 biztanle inguru dituztenak badira, hiri txikiak hurbil ere ezin daitezke ideal horretara, baina mankomunatu ondoren 80.000 biztanletako eskualde bizitza sendotzen bada, bere bizi propioaren kultur hiritzat hartuko genuke eskualdea.

Guzti hau garbi ikusirik eta egonik ere, aurretik finkatu behar ditugunak ere ba dira. Hasi-hasieratik erabaki beharko genuke nondik nora jo behar duen euskal hazkunde edo desarrolloak. Baita ere zeintzu izango liraketeen hazkunde unitateak eta bakoitzaren funtzioak finkatzeak, hau da, zein zeregin duen hiriak, zein eskualdeak, zein herrialdeak, zein euskal erakunde nagusiak. Hau egiten ez badugu hazkunde anakroniko batetara

iritsiko ginateke eta ez luke ezertarako balioko.

Koordinatze hau aurrera eramateko erak ere ongi landu behar dira, jendearen partizipazioa eta eritzi konstatazio sakona beharrezko dira, bestela porrot egingo da, honek jendearen mentalitatea egokitzeko ere balio behar du.

Funtzionatzeko era hau eztabilatzeko organo kompetenteak behar ditugu, mankomunitate era guztiz egokia litzateke legeak ezartzen dizkion hainbat akats gaudituko balitu.

Horregatik bidezko deritzot ezagutzen dugun adibide honen eskemen berri emateari teoria praktika bihur daitekeela frogatzeko ere balioko duelakoan esperientzia honek.

#### DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA

Aurreko kontsiderazioak eginik eta honen osagarri bezala bidezko iruditzen zait Deba Garaiko Mankomunitatearen barnegituraren zehaztasunak zabal-tzea. Honela irakurle bakoitzak modelu konkretu eta erreal baten berri jakingo du. Modelu hau ez da bukatua, ez hertsia, duda gabe beste era batetara fokatzeko aukera ere izango litzateke, dena den hemen doa azalpen laburra.

Eraketaz has gintezen, mankomunitatearen organo gorena partaide diren herri guztien kontzejal oren asanblada da; osatzen duten herriak Elgeta, Antzuola, Bergara, Oinati, Arrasate, Eskeriatza eta Gatzaga Gipuzkoatik eta Aramaio Arabatik, beraz asanbladaren partaidetza kontzejal kopuruaren arabera dago.

Kontzejal hauek hartzen dituzte erabaki gogorrenak, baina ba dute ere beren artean aukeraturiko permanente bat, hau dira lehendakaria, lehendakari ordezkia eta bokalak, ba dute idaz-

# HERRI HB BATUA

## HERRI BATUA

### UDAL HAUTESKUNDEEI BEGIRA

Algortan bizi garenok, azkenaldi honetan "HB" sigla gorritz josirik ikusi ditugu kaleetako ormak. Jende asko dabil "Herri Batuaz" interesaturik, eta mugimendu edo talde hau zer den galdezka. Interes honi erantzun nahiz, eta gai honi buruzko informazioa beste herri eta eskualde batzutarako ere interesgarria izan litekeelakoan HB-ko partaide batzurengana jo dugu. Baldintza bakarra ipini digute, hots, elkarrizketa honetan esku hartu dutenen izenak ez plazaratzea.

#### ZER DA "HERRI BATUA"?

Getxoko pertsona talde batek eratzen dugu "Herri Batua"; alderdi politiko guztietarik at, datozen udal hauteskundeetarako aukera abertzale bat eskaintzea dugu helburutzat.

#### NOR SAR DAITEKE "HERRI BATUAN"?

Oraintsu Getxoko udal barrutian egin den aurkezpenean argitara emandako manifestuan dauden gutienezko abiaburuak onhar ditzan edonor sar daiteke Herri Batuan.

#### ZEINTZU DIRA MANIFESTU HONETAKO PUNTURIK GARRANTZITSUENAK?

1. Getxoko udal arazoei eta gure nazional problematikari erantzun bat emango dien kandidatura abertzale baterako bat aurkeztea.

2. Gaurreguneko udal egiturak deuseztatzea eta, asanblada organismo nagusi bezala onharturik, herriaren barrenetik sortuko diren beste batzu, haien orde ezartzea.

#### BERAZ, ZUEN ERABAKI GUZTIAK ASANBLADATIK SORTZEN DIRA?

Bai, zalantzarik gabe, bai; hauxe da "Herri Batua" funtsezko ideia; ez dago pertsonalismo-rik, ez dirigismo-rik gure artean; gure ustez hauxe da Euskadin lehenengoz egin den ahalegin benetako, edozein inizatiba hartzerakoan pertsonalismoa eta protagonismoa baztertzeko; talde honi hasera eman zioten pertsonen izenak ez dira aditzera eman, eta Herri Batua barruan ere ez dute inolako ekintzarik protagonizatuko ageriki.

#### ZEINTZU DIRA ZUEN HELBURUAK?

Gure helburu nagusia hau da: jende independentearen eta ezker abertzaleko alderdietako militanten baterako kandidatura bat udal hauteskundeetarako aurkeztea.



## ABERTZALE EZ DIRENAK SAR AL DAITEZKE KANDIDATURA HONETAN?

Hara, argi eta garbi utzi nahi dugu ez garelakor inori abertzaletasun etiketak ipintzeko; ez diogu inori galdetzen abertzale den ala ez; orain, udal egitarau bat lantzen ari gara eta abiaburuzko aitortpen bat dator bertan. "Herri Batua" asanbladak aztertu, eztabaidatu eta onhartuko du egitarau hau. Getxoko udalaren barruan herritarurik dagoen eta abiaburuzko aitortpen hau eta bertan datorren udal egitaraua onhar ditzan edonor sar daiteke "Herri Batua".

## ZEINTZU ALDERDIREKIN UKAN DITUZUE HARREMANAK?

Haseran, informazio mailan, eta Getxo barruan, Altsatuako mahaia osotzen dutenekin.

## ZER DELA ETA HAUEKIN, HAIN ZUZEN?

Asanbladari proposaturiko zenbait hautakizun artean, honen alde eman zen botua.

## GAINERAKO TALDE POLITIKOAK HERRI BATUAZ KANPO GERATZEN DIRELA ESAN NAHI AL DU HONEK?

Ez da hori gure asmoa; ezker abertzaleko bloke sendo bat lortzea da gure nahia, gero ezker abertzaleko alderdi hauen eta "Herri Batua" haserako taldearen artean batera landuko den udal egitarau bat berresteko eta ondoren herriari aurkeztuko zaizkio egitarau hori eta utziezinezko abiaburuen aitortpena; lehen esan bezala, hauk onhar ditzan edozein talde nahiz pertsona sar daiteke "Herri Batua".

## NOLA ERANTZUN DUTE ALDERDIEK?

Harremanetan gaude jadanik eta lehen harrera aldekoa izan dela aitortzeko.

## HEGO EUSKADIKO BESTE UDALETARAKO ERE EGOKIA AL DERITZOZUE MUGIMENDU HONI?

Gure ustez, abagadune ezinhobe batetan gaude ezker abertzaleko jendea Udaletan sar dadin eta desiragarri litzateke Hego Euskadiko beste herrietan ere lantzeko taldeak sor litezen. Anaitasuna honetatik geure laguntza osoa eskaini nahi genieke

arazo honetaz arduraturik dabiltzan beste talde batzuri, edozein azalpen emateko, geure planteiamenduaren berri jakinerazteko, lan egiteko modua... etab.

## NOLA EGITEN DUZUE LAN ETA ZER ORGANIGRAMA DAUKAZUE?

Begira, asanblada da gure organismo gorena. Asanblada horretatik 6 lan batzorde zehatz sortu dira eta batzorde bakoitzak ordezkari bat aukeratu zuen. Ordezkari hauek eta Asanbladak zuzenean aukeraturiko beste hiru ordezkari 9 pertsonatako Koordinagailu bat eratzen dute eta batzordeek egindako lanak biltzeaz eta kanalizatzeaz arduratzen da gero asanbladari proposatu ondoren onharituak izan daitezten. Dakusazunez, ez du ezer apartekorik, baina erabat demokratikoa da.

## "HERRI BATUA" ASANBLADA ASKI ERREPRESENTATIBOA AL DA?

Oraingoz 120 pertsona abertzalek eratzen dute "Herri Batua" asanblada eta lehen aipaturiko sei batzordeetan banaturik daude. Hona hemen batzordeak: Kandidaturak prestatzekoa, lege arazoetako, hauteskunde teknika eta propagandakoa, udal programakoa, harremanetakoa eta gestioakoa. Guztiek egiten dute lan (hauex baina asanbladan boza eta botua ukaitako baldintza bakarra) eta Romo, Hareeta, Algorta eta Getxoko Andra Mari ordeztzen dituzte; adiskide edo gogaide multzo bat ere ba dugu eta ideia honek oso harrera ona ukan du udal osoan zehar.

## OPTIMISMOZ AL DAKUSAZUE ZEUN PLANTEIAKETAREN GEROA?

Optimistak gara baina eragozpen askorekin topo egin beharko dugula ba dakigu, hala ere azkenerraino lan egiteko prest gaude, zeren eta ezker abertzaleko jendea Udalean egotea funtsezkoa dela baitakigu herrian habitat egoki bat planteiamendu errealista, abertzale eta euskaldun batekin lortzeko.

Hauk izan dira, hitzez-hitz "Herri Batua" mugimendu sortu berri honetako zenbait langile saiatuak eman dizkigun erantzunak. Herri Batu askotatik Euskal Herri Batura helduko garen itxadopenari izar berri bat biztu zaio, agian.

X. Mendiguren



Orain duela lau urte sortu zitzaigun agalaxiaren problema. Lehenagoko zaharrek izendatzen ziguten hezurmina. Ez dakienarentzat esan dezagun izen honen azpian dabilela eritasun bortitz bat. Gaixotasuna ez da jendeetan aurkitzen baina bakarrik abereetan, batipat ardietan. Arazoaren larritasunari ez dio honek ezer kentzen baizik ematen, ezen berriz ere artzaina baitago hemen ukitua. Nekazariak ere bistan da, baina nola gonbaratu bi hauen egoera?...

74.ean ardiak eritzen hasi ziren eta segidako larrazkenean berean laguntzak izan. Ez gaitzen ilusi, ez zen dirua denei emana eta gure deputatu jaunak, Inchauspèk, aukerak egin zituen. Honela lagunduak ziren batipat, nekazari haundiak, halabaina dirurik ez zegoen denentzat eta beti bezala diruak dirurat jo. Urte horretan berean artzain lurgabe zenbait haserratu zitzaizkigun "nolaz da hori laborari haundiek dirua eskuratzen eta guk artzain ttipiek bazkak ordaindu behar eta laguntzarik ez? Hori ez da zuzen!". Oihu egin ziguten artzainek, zoritxarrez, oso guttik baizik dirurik ez ukan. Ezagutzen ditut zenbait beren bankuko bazterkin apurrera jo zutenak. Besterik ezin egin, nolazpait negubazkak ordaindu behar. Dena dela, lehenbiziko mugimendu honek izan zuen ere bere positiboa, artzainak elkarretartzea eta elkarrizketan sartzea. Beraz, hau zen lehen injustizia, 1974.ekoa.

### ASKATASUNAREN ERREALITATEAN BARNA: ARTZAINEN BORROKAREKIN.

Inchauspè Jaunak egin du bere Jauregia, Lasan,  
Donibane Garaziko herri bazterrean.

Etxe hau zenbat izerdiren fruitu ahal da?  
Etxe hau popularen odola da!  
Zapaltzailearen hobi xuria.  
Bihotz gabeko HARRIA!

Ondoren, artzainak mendiratu eta mahaxek lak arduratu ziren. Mendira igan eta han bertan sortu zizkiguten lehen txertuak, bat Errumaniatik, bestea Iranetik etab... Dena dela, eritasuna apur bat eztitu ziguten. Baina oztopoa gelditu zen eta oztopo nagusia: eritasunari zihoakion txerturik ez zegoen. Gaurkoan oraindik, 4 urte berantago, ezer ez dute harrapatu. Gaurko jakintasuna ikusi eta, zail zaigu ulertzea nolaz ez daitekeen ezer harrapa. Benetan, ezin sinetsizko gauza, giza bihotzak operatzen eta ardi txar bat ezin senda? Bai, ezindura honek beste arrazoirik ba du, eta hau da: errendamenduarena. Ez dagoelako aski ardi ukiturik ez da errentable txertu baten bilatzea. Beharbada errentableago zaie eritasunaren iraunkor bihurtzea eta urraska-urraska txertu flako batzuren aurkitzea. Horrela mahaxelek lana segurtatua dute, laborategietako bilatzaileek irabazpidea, Inchauspèk bere zerikusia eta artzainak: KAKA. Besteen miseriaren gustuz aberasten zaizkigu zenbait, hobekiago esateko, baten gaitzak dakar bestearen zoria. Oligarkiaren bistan da! Hau zen bigarren injustizia, esan behar nuke hau da, ezen gaurkoan postura berdinean baikaude.

1977.ean arazoa saminduz zihoan, izpirituak argituz eta haserre gogorra haundituz. Eta hona non, maiatzkari, 500 artzain laborari, baita artzain lurgabe, subprefetaren etxera aurreratu zaizkigun. Bortizki joan zen afera, artzain zahar zenbait harritu



eta gazteak zauritu. Gerran zebiltzala esan ziguten batzuek. Benetan begiak ireki ere bestek. "Zer alemanen aurkako borrokan bezala, tiro eta bonba. Frantsesa frantsesaren kontra? Ega guk, ez genuen deus trabarik egiten". C.R.S. gogorak nekazarien aurka botatzen inork ez zuen ikusi. Egun horretan zuen esan subprefetak "populace" hitz mespretxagarria. Dena dela, irudi luke harrikaratzeak, ba dela bere indarra, ezen, handik hurren, arazoak aurrera egin zuen eta diru apur bat ere etorri. Bertako ardidunen elkarteak egin zigun azterketa bat oso sakona eta ardi galtzeen, hiltzeen, mozkin suntsitzeen estimua agertu: 150 milioi liberatara heltzen zaigu. Oraikoan kontseilu jeneralak 60.000.000 libera ematen ditu eta gobernuak beste horrenbeste. Orotara, 120 edo 130 milioi libera zahar. Dirualde oso estimagarria, artzain eta laborarien borroka erdietsia. Hori da bitorioa! Ez dezagun gutiets geure borroka. Halere errealismoaren mailan gaude, diruaren eskuratzea ez delako aski, eta hor dago diru honen partimenaren arazoa. Arazo benetakoa: NORK eta NOLA egin partimenak? Hona zer erabaki digun jaun prefetak: 1) Kontrolezko batzarreen egitea kantonamendu bakoitzean (Gazain, Baigorri eta...), 2) Batzarre hau osatuko dituzte: kontseilu jeneralak (U.D.R. dirudunen aldekoak), departamenduko mahaxelagoko batek, nekazarien sindikako batek (F.N.S.E.A. nekazari kapitalisten aldekoa) eta ardidunen sindikako bat. Harritzen gara non dabilzan artzain lurgabeak? Nor mintzatuko da hauen izenean? Hona berriz ere demokraziaren irudia: artzain bat ere ez dagoela elkarte partitzaile honetan. Beraz, logika guzieren aurka zerikusidun den artzaina kanpoan dago.

Alta lehen premia, ez ote du ardietaz bakarrik bizi zaigun gizon zapaldu honek? Zergatik beti eta beti bestek erabaki behar digute honen arazoetaz? Zergatik, ezerresponsible baten irudira erabili? Zergatik, zapalduak ume baten mailan ezartzen gaituzte? Bai, amaitu beharko dute nagusien eta oligarkiaren mespretxuak. Ez da posible horrela segituzerik. Argi dago beraz betiko maltzurkerietan gabiltzala Frantses gobernuak ez dugu atzo sortua eta jende ttipien izorratzeko praktika aspaldi frogatu du. Nola indar laborari ttipien eta artzain lurgabeen arteko bereizkuntzak ba daki; ez ahal du berak esaten "il faut diviser pour régner" = langileak elkarren artean bereizi, elkartasuna ebaki menperatzaileen boterea indartsuago bilakatzeko. Gaur, artzaina dugu zurubiaren lehen maila, hautsi eta kendu, hots, hil egin behar dena. Bihar, nekazari ttipiaren aldia izanen da. Eta gero zer? Edo Iparralde bat eta bi arrantxeroren esku odoltsuetara eroriko da? Behin batek esan zuela "krima guziak



Ardi hauk gaixo edo eri daude.  
Baina deputatuak sendo eta aberats dira.  
ARTZAINA pobre.

ez dira ordainduak" zer egia deritzogun!... Dena dela, klarki nabartzen digute artzaina hil nahi dutela eta gure mendietarik kanporatu nahian dabiltzala. Ba dakigu zertarako: euskal mendia osoki turistakeriari eta ihizilarikeriari saltzeko. Hau da putakeria, gure ostalariak, komertsantek eta gobernuaren morroiek, ez dute beren gorputzik putatzen baina bai populuarena. Populua jo, zapaldu eta gorputz saltzera bidaldu, amore faltsuak egitera, ongi pagarazi ondoren, zapaltzaileek dirua bankuratu. Horrelako jarrerak ez zaizkigu moralezkoak, ezen ezkerrean dagoelako benetako morala: ez legezkoa baina bihotzezkoa. Battita Larzabalek zioen bezala (E.H.A.S.eko kandidatuak) "klase borroka, hau da Iparraldean". Eta gu honekin bat gatoz, ezen mendia artzaingoa defendatuz guretuko baitugu, zelaia nekazaritza defendatuz guretuko dugu, HERRIA populua heldutasunera eramanez askatuko dugu. Borroka gaitzen beraz, Iparraldea ez dadin zapaltzaileen paradisu bilaka. Artzainen problema: aurreramendu ezezkoeñ heriotz usaina, ez populuarena! Euskal Herria benetako askatasunera doala? Dударik ez!

M. L. UHAITZE

- Mahaxela: vétérinaire (abereak artatzen dituen)
- Zurubia: échelle (zuhaitz gainera igoateko)

# SINDIKAL HAUTESKUNDEAK




Langilearen eskubidea

Azken berrogei urtetan egin diren lehenengo sindikal hauteskunde libreak egin dira. Dagoeneko, lantoki gutxi gelditzen dira hauteskundeak egiteko. Pauso honen bidez, entresetako munda erregulartzeko bidean sartu da.

Orain hilabete batzu dira sindikatuak legeztatu zirela. Hauteskundeak direla medio, panorama argituz doa eta sindikatuak beren papera hartzen.

Lantokitik lantokira egin dira hauteskundeak. Ia Abendualderako, sindikal hauteskundeetarako kartelak paretetan agertzen hasi ziren. Gobernuaren Dekretulegea irten orduko, sindikatuak lanean jarriak zeuden. Euskal Herrian, Estatuan baino lehenagotik jarri dira lanean. Denetatik, ELA izango zen giroa zabalduko zuen aurrera. UGTen ustetan, epe baten barnean egin behar ziren, elektoralista planteiamenduaz jokatu. ELA berriz, inongo mugarik gabe hasi zen, entreseta bakoitzeko dinamika ikusi ondoren.

Hauteskunde normatibaren bueltan, batzuk lehenago eta beste batzuk geroago egin dituzte; kasu gehienetan, normatiba errespetatu. Besteetan berriz, komeni zitzairen eran. Normatibaren kontra joateko arrazoiak izan dituzte sindikatuak. Hala ere eta besterik ezean, oinharritzat jo dute gaiak zuen premiagatik.



Euskal sindikalgintzaren txinpartak

## GOBERNUAREN JOKOA

Aspalditik, Gobernua ari da sindikatu marxisten kontrako joera zabaltzen. Bilboko periodiko batek zioena argigarria da exenplu bezala, zeren eta, bere ustez, o/o 20ra ere ez da iristen langileen sindikapena edo afiliazioa. Baita telebistan ere, UGT eta CC OOREkin baterako datuetan, "independen-

denteen" numeroak azpimarkatzen ditu Gobernuak. Berak kontrolatuko duen sindikatu batean sartu nahi du oraindik "sindikatu marxistekin" ez dagoen langile mordoxka bat.

## POLITIK ETA SINDIKAL HAUTESKUNDEAK

Lehen esanak, ez du Euskal Herrian tokirik; ez dago horren arriskurik hemen. Eta UCDeK bere sindikatua aurrera ateratzeko posibilitaterik ikusten badu, hemen, hori ere ez.

Hauteskundeetan ikusi da beste hainbat gauza. Batzuk uste izan ez bazuten ere, politik eta sindikal hauteskundeak oso termometro ezberdinekoak izan dira. Triunfalismoz beterik, politizatu egin dute. Alderdiaren irudiaz jokatu dute, partiduaren politika jokatu. Datuak ikusi ondoren berriaz, handik eta hemendik hasi dira denen kontra. UGTen kasuan, oso garbia izan da, zeren eta Redondo-k Feliperen irudiaz jokatu du. CC OOek ez du horrela jokatu.

## EUSKAL SINDIKALISMOA NAGUSITU DA

Ezin bada orain, hauteskunde hauek dakarten ondorioaz gehiegi sakondu, has daiteke bai, zenbait puntu argitzen. UGTek ez du bere eskuetan zegoen indarra agertu. Bestalde, CC OOek presentzia zabalago agertu du, batipat empresa erdi eta txikietan. Eta hirugarren puntu bezala, etorkizunean asko jokatu duen datua agerterazi du: Euskal Herriko langileek euskal sindikalismoa jokatu dutela. ELA indartsuena irten da. Beste mailan, LABek ere erakutsi du kemena minoritarien artean.

Egia da, pauso bat besterik ez dela egin, baina sindikal panorama asko argitu da. Argitu ere, euskal sindikalismoaren alde.

Euskal Herriko politikan beste neurriak badaude, ba du zer esana hauteskunde hauek eman duten ondorioak, egiten eta estrukturatzen ari den euskal gizartean.

M. B.



Sabino  
Echevarria  
Güenechea / Promociones

Carmen Kalea 11 - 6 esk.  
Tlph. 673 06 19 - 748 - 729  
Zornotza/Bizkaia

Zornotzako merkatal lokale eta 90 etxabizitzaren eragintza eta salmenta.

## ERLOJUTEGIA ETA BITXITEGIA

ORIENT - SEIKO QUARTZ

# Comercial SANCHEZ

Erregalugaiak (Hemengoak-Atzerrikoak) eta enkantea.

Erloju moeta guzien konpontze segurtatuak.  
Bapateko bitxigintz grabatuak

DENDA NAGUSIA  
Ramón y Cajal 30  
Telf. 4357595  
DEUSTUA - BILBO 14

ORDEZKO DENDAK  
Particular de Diez 2  
Telf. 4331743  
SANTUTXU  
BILBO

Rondoko 4  
Telf. 4470338  
SAN IGNACIO  
BILBO 14

BAZAR SANCHEZ  
Virgen de Begoña 16  
BASAHURI

*Otsailaren lauean degu/ Santa Ageda bezpe  
gazte jendiak alkar hartuta/ etorri gera eske*

Gaur ez da lehen bezala kantatzen, etxez etxe ibiltzeak ez baitu, agian, zentzurik. Ziurta handitan behintzat ez du, horietan denok gara anonimok. Eta herriskek ere haien arabera antolatzen dute beren bizitza. *Gaztetan hasiz pasiak dauzkat/ kantuan majinat urte/ usadio hau ez da galduko/ mundua mundu den arte.* Baina mundu hura joan zen, Oeste zaharra bezala. Nekazaritzak hainbeste urtez gordetako kultura, gizarte industrialak ezabatu du, klarionaz egindako arrasto singleak bailiren. *Santa Ageda zebratutzen/ alde eta apartian/ agur etxeko den-guztiori/ hurrengo urte artian.* Baina, hainko batetan ez zen izan beste hurrengorik, orduan bukatu ziren komeriak. *Santa Agedaren usarioak/ aspaldikoak dirade/ orain bezala zebratzia/ desio dugu gero ere.* Baina hainbeste desio ez dira bete, Batista...

Batista diot, bereak baitira hemen luzatu dizkizuedan bertso horik. Batista Kortajarena, Pello Errotaren iloba, Santa Agedetako koadriletan koplari bezala ibili zen azkenetakoa. Bertso horik ("bi puntukoak egunari zegokionez") orain dela hamar bat urte bota omen zituen, eta ofizioak ematen duen memoria dela medio errepikatu dizkit niri Asteasuko tabernan. Santa Ageda da gaur ere, baina inor ez dabil bidetatik. Zakurrak zaunkaka eta lanbroa bazter guztietan, horixe. Iraganari begira bizitzea ez dateke onuragarri. Hobe, noski, gaurkoaren talaiari egotea. Baina, halere, iraganari buruz arituko natzaizue igande arratsalde honetan. Igande arratsaldeak, bestalde, ez dute ezertarako balio.

Baserriz baserri ibiltzen ginen. Gazteek deitzen ziguten koplari joateko, eta guk etxe bakoitze-ko gorabeherak ikasten genituen kantatu aurretik, bertakoen izenak, andregairik ba zuenentz bertako mutilak, eta baldin bazuen, zein izenetakoa, eta horrelako gauzak. Ez ziren bertso gaiztoak egiten, ondratutzekoak bakarrik. *Etxeko andriak ematen digu/ eskatutako guztia/ Jainkoak deiola urte askoan/ ondo izateko grazia.*

Orain koruak ibiltzen dira hortik barrena, Donostian edo Bilbon, ohiturari segida emanez. Proitekoa da. Baina koruak herrikantaren museoak dira, bizitzarik gabeko zerbait. Museo guztiak kantsantu kutsu bat izaten dute. Ohitura naturalak—eguneroko bizitzarekin peto peto loturik ibiltzen direnek— dute indarra ez da aurkitzen ez filmetan, ez teatrotan eta ez korutan. Horrela da eta ez da bueltarik. Mundu zaharrak bota du kutzareak hil da.

Eta edertasun asko hilobira eraman du berarekin. Eskutan daukat, esate baterako, hirurogei bat urte dituen bertsopapera, non azaltzen diren Santa Agedako koplak zahar batzu—jakin egin behar zerbait urte dituzten— eta non ikus daitekeen estetika tradizionalaren edertasun hori. Uste dudanez hemen dakartzadan koplak batzu ezezagunak dira. Beste batzu, ordea, ez. Bost bat "Arratia" deitu diskotan kantatzen dituzte emakume bizkaitar batzuk. Nik Asteasun jaso ditut, Juan Jose Oteroren eskutatik. Azkuek bat aipatzen du, eta Zumaian jaso duela dio. Koplak horik, antza, Euskal Herri osoan ezagutu/ eta kantatu dira. Koplak zaharretan gure memoria dago, eta hogeikoplak hauetan (hemeretzi, hobeto esanda, bat errepetitua baitago) zerbait jaso zenezakete bitamina gisa edo, phosphoroa bailitz. Inprimategiko hutsak ahal dudak neurrian zuzendurik hor doazkizue lehenengo bostak:

1. *Nagusi jauna aurrera/ erreberentzia lurrera  
Lotsa gerala etorri gera/ Jauna bedorren aurrera*
2. *Alkate jaunak egondu gera/ atzoko arratsaldean  
Libertatia gerekin dugu/ ibiltzeko pakian*
3. *Eder eleizan liburu/ usuak haren inguru  
Etxe honetako ttiki haundiak/ pasadisuan aingeru*
4. *Eder elizan altare/ harri labratuz pillare  
Birjina amaren eskojituak/ etxe honetan dirade*
5. *Usua doa otarra(ra)/ nere begia lotara  
oraintxe noa nagusi jauna/ Berorren koplelara*



Bertsopaper hauk puntualki heltzen ziren herrietara. Ni neroni ez naiz gogoratzen Santa Agedakoetaz, baina bai Eguberritakoaz. Urtero, hutsik egin gabe, zepoekin batera ailegatzen ziren. Ume bakoitzak zepo bi eta bertsopaper bat erosten zuen, txoriak harrapatzea eta koplak kantatzea negu hotzetako bi hospakizun eta dibertimendu paregabe baitziren. Nondik etortzen ziren misterio bat zitzaidan, eta zait oraindik ere. Baina egia zera da, bai Lexonan edo Zeanurin, nola Elizondon edo Ataunen, ezagunak zirela, leku guztietara heltzen zirela. Inprimategiaren ezagugarrikerik gabe gainera, nik orain kopiatzen dudana bezala, orrialde anonimoak. Baina jarrai dezagun.



6. Eder soruan goldia/ Soñian kapa moria  
Etxe honetako nagusi jauna/ ondo gizontxo noblia
7. Eder zeruan izarra/ errealdian lizarra  
Etxe honetako nagusi jaunak/ Urre gorritz du bizarra
8. Urre gorritz du bizarra eta/ Diamantezko espalda  
Berorri bezin gizon presturik/ Herri honetan ez al da
9. Eder intxoren kordena (?!)/ Halaxen dugu ordena  
Etxeko andria koplatutzeko/ Nagusiaren hurrena
10. Etxeko andria horra hona/ Zere gauzaren doi ona  
Pascua goizian jantziko dituzu/ Zere soñean hamar gona

Ikusten duzuenez, kopla hauek ere Manuel Lekuonak hain zehatz aztertutako dualtasuna dute: estraineko bi estrofitan irudimenezko apunte bat egiten da, poetikoki ausarta (Diamantezko espalda), imajineria erlijios batetik edo naturaleza bertatik harturikoa. Bigarrenean berriz, bere "mezua", "esan beharrekoak" botatzen dira. Gaurko euskaldun batek horrela idatziko balu, bere herriko koekipier guztiak, mekauen dioska agurtuko lukete, "tipo hori surrealista elitista bat duk" esanez. Eta lasai lasai geldituko lirateke, hori da okerrena. Baina ez gaitezen petralkeriatan hasi, eta segi diezaiozun.

11. Txuri nabarra azpiko/ gorri ederra azpiko  
Andria zure parerik ez da/ plaza bat onratutzeko
12. Eder baruan espala (?!)/ nik ezin esan bestela  
Zure besoan lo egin lezake/ paradisuaz bezala
13. Horra hor goian iturri/ Ura txorrotik erori  
Etxe honetako zaldun gaztiak/ Hamalau urte txintxirri
14. Hamalau urte txintxirriarekin/ Zazpi damaren eguzki  
Haiek guztiak hala izanik/ gehiago ditu merezi

Kopla horik, seguru asko, bilduma bat dira. Arestian aipatu ditugun koplariengandik jasoak batzuz, noizbait sortu eta urtetik urtera aldatuz joan direnak besteak. Lekuonak dioenez, ez dago hasierako estrofen eta bukaerakoen artean harreman logikorik. Harreman majikoaz ere mintzatzen da. Hemen gauza bat bakarrik gehituko diogu berak esandakoari: Estraineko estrofitan azaltzen den kolore ugaritasuna (horien artean, gainera, urrea eta distira duten beste kolore asko sartzen dira, eta era honetako koloreak Jung-ek arketipikotzat jotzen ditu; Tralk poetaren izkribuak begira hau konprenitzairen). Eta buka dezagun, pertsonala ez aspertzairen. Hauk dira azkeneko bostak:

15. Harantza beltza ostrua ttiki/ Puntara saku loratzu  
Orain hemen bihar genduke/ Dama gazte bat koplatu
16. Damatxu gazte konpondua/ Hori kolore gorria  
Zure matraila iruritzen zait/ Krabelinaren orria
17. Krabelinaren orriarekin/ larrosa maiatzekoa  
Zeuri begira hementxe nago/ Damatxo bihotzekoa
18. Eder ezpata magiarekin/ magia prontalarekin  
Etxeko andria etorri zaigu/ Eskuan limosnarekin
19. Limosna ere hartu degu ta/ orain abia gaitian  
Adiosikan ez degu eta/ agur ikusi artian

Beste gauza bat. Koplak zeuden bezala jarri ditudala, ordena berean. Eta besterik ez. Hurrengorartio, Kortabitartio.

bernardo atxaga



# DOÑA PRUDENTZIA ETA IDEALISTA

Doña Prudentzia kafetegira sartu denean blai eginda dago.

DOÑA PRUDENTZIA.— Hau da euria eta txingorra, hau!

IDEALISTA.— Gaur kafesnea bero-bero ipiniko dizut.

D. P.— Ikus nolako eguraldia dagoen eta Don Lito, nire senarrari, hara Iruinera joan behar duela bururatzen zaion.

Idealistak ironikoki begiratzen du.

I.— Zer, Del Burgo bisitatzea?

D. P.— Zu beti burrukaren irrikiaz, e?

I.— Eta zu nirekin burrukan pozik. Baietz igandeetan zerbaiten falta sentitu.

Doña Prudentziak maltzurki erantzun dio.

D. P.— Bai, zuen kafesnearena.

Doña Prudentziak zurrutada bat edan du.

D. P.— Eta zertaz burrukatu dugu gaur?

I.— "Egin" en irakurtzen nengoen Donostian 22. sigla batu direla biolentziari buruz zerbait erabakitzeke.

D. P.— Bai. Nik "La Gaceta" n irakurri dut. Eta HASI eta LAIA bileratik irten direla. Zertan ari da ezker abertzalea?. Hauk bileratik irten, EIA eta EMK Altsatsukoengana ez joan... Zer portaera da hori?

I.— Beno, haritik irteten ari gara. Biolentziaz ari ginen.

D. P.— A, bai!. PC oso formal dabil, nire seme txikiak plater bat apurtu ondoren egoten den bezala.

I.— Ba dirudi Armada eta Polizia bereganatu nahi duela. PC-koek ongi konturatu dira indar harmatuen garrantziaz eta euskaldunontzat oinharizko diren puntu bietan amore ematen die Gubernukoei, nazional arloan

"PC de Euskadi", Nafarroa ez sartuz, eta sozial arloan krisia inolaz konpon ez dezakeen Monkloako Ituna sortzen eta defendatzen.

D. P.— Ni ez naiz horietaz fidatzen, eta dirudienez zu ere ez.

I.— Ekainaren hauteskundeak ditugu lekuko Euskal Herrian nola frakasatu duten ikusteke.

D. P.— Beno, eta biolentziaz, zein da zure eritzia?

I.— Ene ustez, Gobernuari Euskal Herriko tentsioa mantentzea interesatzen zaio.

D. P.— Zergatik?

I.— Euskal Herria ahuldu nahi du, Espainiatik aparte bizitzerik ezina zaigula jakin erazteko. Biolentziaren kausaz, ez dira hemen fabrika berriak eraikitzen, eta daudenak edo kanpora eramaten dituzte edo hertsu nahian ari dira. Eta gu, tontoak bezala, Gobernuari jokia egiten.

D. P.— Orduan zu ere biolentziaren kontra al zaude?

Idealistak ez dio galderari erantzuten eta arrera egiten du.

I.— Gobernuak ikurrinarekin problema zentzugabeko bat sortu zuen. Ikurrin bat legalizatu edo bederen toleratu den gauza sinplearekin, sekulako problema sortu zuen, intransigentsia susmotsu bat erakutsiz. Azpian zegoena, noski, tentsioak sortzeko nahia. Ikurrinaren eskandalua gehiago luzatu ezinik, hura bukatu egin behar zuten, eta orain Nafarroaren problema artifiziala sortu dute, hura bezain faltsu eta zentzugabea. Gobernuak eta UCD-ko tontoenak ere badaki Nafarroa historiaren, geografiaz, kulturaz, etniaz, ekonomiaz, etab. Euskal Herria dela, eta lehenago edo beranduago ukazinezko egia hori onhartu beharko duela. Baina beren helburua ez da hori, tentsioak sortzea baizik, biolentziak giro egokia izan dezan.

D. P.— Eta ez al du horrek irtenbiderik?

I.— Bai, noski. Guk, ezker abertzaleok, baturik indar politiko bat osatuko bagenu, ETA-ren alternatiba politikoa ginatke. Beraz, gure bateratze ezaz, Gobernuari jokia egiten ari gara, ETA-ri alternatibarik ez eskaintzean eta, beraz, burruka harmatuari jarraipen politiko bat ukatzean. Ikus. Nire ideologia ezker abertzaleena da, baina independente bezala nago, eta ni bezala milaka gaude. Ezker abertzale alderdien panorama oso nahasia ikusten dugu eta ez gara militante bezala sartzerantz ausartzen. Batuko balira, bai, denok hurbilduko gintzaizkioke geure izenak ematera eta alderdi handi bat sortuko litzateke. Orduan, erdi-eskuineko alderdi handia PNV litzateke, eta ezkerrekoa Alderdi Abertzale Sozialista hori, eta beste guztiak, popatik hartzera.

Xabier Gereño

## SABINOREN OBRAK FAXISTAK ARGITARATZEN ARI.

### **POLITIK-ASTE**

Para desprestigiar al fundador del P. N. V.

## Los "derechistas" editarán un libro sobre Sabino Arana

Según nuestras noticias, en esferas políticas de derechas se ha puesto en marcha una iniciativa para llevar a cabo una edición masiva del pensamiento de Sabino Arana, fundador del moderno nacionalismo vasco, y creador, en consecuencia, de la palabra Euskadi, diseñador, además, con su hermano Luis, de la Ikurriña.

En un principio, las derechas pretenden editar unos tres millones de ejemplares, que serían repartidos gratuitamente, tanto en las provincias del País Vasco como en otras.

Lógicamente, no cabe esperar que los derechistas editen —con su propio dinero— un libro para «enaltecer y destacar» la ideología nacionalista sabiniana. El efecto que se pretende lograr es precisamente el contrario. Se quiere poner en evidencia el «espíritu racista —se nos ha dicho— de Sabino Arana para que el público conozca los antecedentes del nacionalismo».

La edición —que repetimos, se va a difundir gratis en buzones, domicilios, etc.— estará subvencionada mediante aportaciones económicas voluntarias de particulares. Las cantidades que se están recogiendo en sectores derechistas oscilan entre las 50.000 y 100.000 pesetas. Se nos asegura que ya han sido logrados dos millones de pesetas, teniendo como meta los seis millones, cifra que se considera suficiente.

El objetivo de los promotores de esta idea es que todos los habitantes del País Vasco tengan gratis el citado libro, que, repetimos, «pretende resaltar, para poner en evidencia, las ideas racistas de Sabino Arana».

Bilboko Hoja del Lunes-en (78/I/23/ 3. hor) irakurri dudanez, Euskal Herriko espainol eskuindarrek Sabino Arana Goiriren obra "hautatuak" argitaratzeko asmoa dute, horrela Abandoko politikariaren arrazismoa agertzeko. Egiteko gogo duten tirada hirur milioi aletakoa (sic) izanen da, Euskal Herri eta Espainiako probintzietan mundu guztiari dohainik (sic) liburu bana eskaintzeko. Errepublikara, euskaldun autonomistak desprestigiatzeko PCEkoek egindako gauza bera, halegia.

Duela urtebete eskas, neronen herrian ere propheta omen ez naizenonek jadanik arrisku hori seinlatu nuen (irakur ANAITASUNA, 77/III/15, 336. zenb. "Gauzak argituz", 25-29.horr), euskaldunon Aranaren kontzepzioak eta lana etxean, geure onerako eta kanpokoek egin baino lehenago, kritikatzeko premia azpimarratuz. Alferrik gertatu zen baina. Basamortuko haizeek eta 15 juNeko hauteskunde hordikeriak zuhurtasunaren boza ixiltzen dute maiz. Sabindar txanponaren alde onaz batera txarra ere erakustera ausartu nintzelako, PNVekeen haserreak haizatu nituen gaizto ofizialonek.

Oraintsu, gainera probintziano ondo ezagun batek aurpegira bota dit Sabino kritikatzeko bekatu larria. "Deiturak arrazaren indize bat direla onhartzean —holaxe diosku berak— inplizituki haren indizea hizkuntzazkoa dela onesten du (Sabinok) eta ez arrazazkoa". Nik neuk ez dakusat oraino, tautologiaz ez bada, nola gerta daitekeen arraza arrazaren neurri izatea, baina holako malabarismoeekin Aranaren esanak eta —politikari batengan larriagoa dena— "idatziak" oro nola edo hala xuritu nahi izateari alderdikeria hutsa deritzot, are gehiago, esan zaigunez, Euskal Herrian bizi diren erdalduenez, etorkinez bereziki, hain kezkatuak bagabiltza.

Ez diot logika handiegirik aurkitzen, bestalde, —hura asmatu zuenaren kontra pilota ironia gaixtoz bihurtzeko ez bada behintzat —erdarazko "vasco" euskarara itzultzeko, zenbait tokitan eta nolabaiteko nazional atxekimenduzko esanguraz erabiltzen den "basko" hitzaren orde, behiala, arrazaren gaintasuna nabarerazteko sortu zen euzkotar delakoa birpiztu nahi izateari. Talde bakoitzak, legeztaturik egon zein egon ez, bere umeak fierki maite ohi dituela gauza jakina da, baina hori egiten denean, otoi, ez diezazkigutela tradizio, jatorri, herri eta hizkuntz sustrai garbiak nahas.

Hitz joko eta itzulpide guztiok laster desagertu egingen dira baina. "Sabinok esandako gauza konkretu honekin, horrekin eta harekin konforme zaude ala ez?" galdetuko digutenean, jendeari "bai" ala "ez" erantzun beharko diogu: bai ala ez "osoak" eta "biribilak", inolako baina eta atxakiarik gabe. Hori heltzeko dugula jakinik, bai pertsonalki eta bai alderdi gisa, oraindik aranolatria integrista eta ofiziala gorde eta iraunerazteko nahia absurdu bezain suizida da.



PNVek, nahi badu, noski, horixe egiteko esku-biderik dauka, baina bere jarrera horrekin Euskal Estatu propio baten alde ari garen beste guztiok ere zikintzen gaitu batera. Nork bere idoloei intsentsua eskaintzen segi beza; halakoengan federik ez dugunok ordea, ez dugu, sinesten eta sentitzen ez dugunagatik zertan martiri izan behar. Eta hau konpon-tzeko lehen pausotzat, on genuke guztiok, alde edo kontrakoak izan, Sabinoren obrak "irakurtzen" hastea, orain arte memeloki laudatzen edo gaitzes-ten ari garena hobeki ezagutzeko. Sorpresa galan-tak hartuko genituzke segurki guztiok.

Baina ez, oraingoan ere alferrik dateke. Biblia edo Korana sekula santan irakurri ez arren Jainkoa edo Allah adoratzeko duen fanatikoaren antzera se-gituko dugu guk hemen: euskaldun fededun beti.

Eta ironikoa bezain nigargarria, egiaz, Sabino Aranaren obrak haren etsai —geure etsai— amorra-tuenen eskutik ezagutu beharra. Bis dixi eta bis sal-vavi animam meam.

Xabier KINTANAK  
78/II/25

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi ondoko txartela eta bidal helbide hontara:

**ANAITASUNA**

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 - 09 - 08 - 07

**Izen-deiturak** .....

**Bizilekua** .....

**Herria** .....

**Probintzia** ..... **Tel** .....

# anaitasuna

Bizkaia  
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai

**Urteko abonamendua:**

Bertorako .....	1.000 pezeta
Latin Amerikarako .....	1.150 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako .....	1.300 pezeta

**Ale bakoitza:** 50 pezeta

Azkenaldi honetako pasadizu, gertakari eta jazokerak ikusirik ez da ortzaitza oso baikor agertzen, ezin daiteke benetan esan zerua hodeigabeko eta urdin agertzen zaigukeenik. Espainiar Estatuko oinharrilegaren, konstituzioaren aurreprojektuarekiko jarrerak sortzen direla, egoera ekonomikoa gero eta modu errealagoaz dakusagula, giro politiko jenerala batere osasuntsu gertatzen ez zaigula, ezin daiteke benetan esan buruhauskor eta beharrik gabeko agertuko zaigukeenik datorren bolada.

Eta zalantzarik bageneukan, hor dago konstituzioaren aurreprojekturako aurkeztu diren zuzenketa eta emendakinetan espainiar ezkerak Hego Euskal Herri hau kokatzen deneko Estatuaz pentsatzen duena eta daukan burutapena. Eskuinak zer zuen buruan ezaguna zen, ezpairik gabe; ezkerak zer zeukakeen asmatzekoa, nahiz eta, zergatik ez, itxaropena ez genuen egundo osorik galdu. "El País" Madriliko egunkari burjes liberalak emandako laburpenetan argi eta garbi isladatzen dira kontzepziook. P.S.O.E.a, esate baterako, singularrez, "espainiar nazioa"z ari da, eta beronen barnelementuak bezala "nazionalitateak" eta "herrialdeak" ditu aipatzen. Alderdi komunistak "Espainiako batasuna"z dihardu, "nazionalitateak" eta "herrialdeak" autonomoak izan daitezkeela, horretan alderdi sozialista bezala, gehituz. Alderdi sozialista herritarrak, P.S.P.ak, gauza bera errepikatzen du, eta katalanak, diren pragmatikoak direlarik, hori baita errealismoa jaunok, ez dira atzean gelditzen. Eta aipatutako alderdiak federalista direla, Jainkoari eskerrak. Zer izan zatekeen hori ere izan ez balira!!

Ni ez naiz zuzen politikoan bereizle eta espezialista, baina orain arte bederen igarri uste izan diot "nazio" eta "herrialde"ren artean dagoen diferentziari. Igarri uste izan diot Espainiar Estatuan, kanariar irlen arazoa aipatu gabe, lau nazio, lau herri dagoelakoari; igarri uste izan diot nazio batbe-

derak, Espainiak, Herri Katalanek, Galiziak eta Euskal Herriak, bakoitzak bere herrialdeak dauzkalakoari, baina dirudienez txarto, oso txarto, igarri egin diot, zeren inork ere horrelako konturik aipatzen ez baitu, zeren inor ere Espainiar Estatu federal behintzat izan daitekeela gogoratu ez baita. Hatik, troskistek esan arauera, alderdi sozialista langileen alderdi bat da eta P.N.V.a, berriz, euskal burjeseriarena. Bigarrena ukatu gabe, zeinek defendatzen ditu ordea Espainiar Estatuko goiburjeseriaren interesak, bere zapaltresna, Estatu hori berori, oroz gainetik eta inolako desenkusarik gabe sagaratu eta defendatu egiten duenak besterik? Eta "Consejo General Vasco" delakoaren lehendakaritzarako egiteko den hauteskudean gertatuak ez dirudi baieztapen hau ukatzen duenik, zeren hor U.C.D.k eta P.S.O.E.k, hots, Estatuaren defentsari sutsuek batera joko baitute. Eta ez hori bakarrik, agian demagogiaz, baina zalantzarik gabe justiziaz, Alderdiak lehendakari euskaldun bat nahi zuen, eta hori arrazismoa dela entzun behar izan dugu. Noiz arte? Datorrigun burruka latza da eta agerian dago, sozialismoaz gain, askatasun nazionala lortu behar dugulako burruka harmatua ere beharrezkoa dela, hori dela geure egoera bereziagatik daukagun bortxapide bakarra, eta zuzen zuzenik gure mugimenduak, Espainiar Estatuko goiburjeseriaren bihotz-bihotzean jotzen duelako, ezin ekandu egin litzakeen bakarrrak garela.

E.T.A. kritikatzeko Donostiako batzarreak ere gauza bera uzten du agerian, hots, ezker abertzaleak eta ezker estatualistak eskema desberdinak darabiltzatela prozesu historikoa juzkatzerakoan eta beraz estrategia politikoak planteatzerakoan. Haietzat euskal nazioarazoa arazo demokratiko bat da, guretzat berriz prozesu historiko bat, sozialismorako prozesua, iraultza, osotoro ezberdin egiten duen zerbait. Nolaz uler daiteke bestela P.C.k Nafarroaz egin duen muntaketa hango burjeseria zentralistarekin batera? P.C. bera izan baita kontuaren asmatzailea, ez beste inor.

Eta batzen ez garen bitartean, ezkerismo merkea egiten jarraitzen dugun bitartean, euskal sindikalismo batzarzaleari egitura sendorik ematen ez zaion bitartean ez daukagu ezer egiterik. Era berean, eta Euskal Herriaren mailan behintzat, Carrilok dioen moduan, sektore kontramopolisten, kulturindarren eta langileen batasun faktikoa lortzen ez dugun bitartean ez dugu ezer lortuko, ez sozial-, ez eta nazionalki.

Andolin Eguzkitza

anaitasuna

euskal herriari,  
informazioa  
euskaraz.

EUSKAL PRENTSA  
EUSKALDUNON HITZA

*zeruko*  
ARGIA

GEU  
GARA  
EUSKAL  
PRENTSA

anaitasuna

*zeruko*  
ARGIA

## AINGERUEN SEXUA ETA EUSKAL ALDIZKARIAK

Estatu honetako aldizkari eta egunkari ia guztietan ETari buruzko teoriak, gustu batetarako teoria susmagarriak azaltzen ari zaizkigu. Opinió-en, El País-en, Interview-en etab. Aldizkari horietarako oso probetxagarria da ETari buruz hitz egitea. Literatura hori ba dirudi oso ongi saltzen dela. Sexuaz aritzen den literatura merkea bezalaxe. Euskal aldizkariak nahiz eta aingeruen sexuari buruz aritzea ez lituzkete horregatik tiradak gehituko. Eta guzti honen errudun nagusia erabiltzen dugun hizkuntza da. Hots: euskara. Euskara gure Euskadiko egunkari biek mustratzen digutenez ez da albiste eskandalagarriak edo eta garrantzizkoak emateko gauza. Jende askorentzat, ez bakarrik espainolista direnentzat, euskaraz emandako albisteek ez dute inolako seriositasunik. Hori gauza eza-guna zen eta ba dirudi orain gero eta ezaguna eta standardizatuagoa dela. Euskal aldizkaritik edozein birao edo espioi klabea eman dezakezu, ino enteratuko den lasai egonez. Espainiako erregeaz, Espainiaz, bere batasunaz, beraren harmadaz aritzeko libre eta oztoporik gabe azal dezakezu. Tamalez, euskal letrak irakurtzen dituztenak gure eritzia-rekin batera datoz. Nahiz eta gu erregeari kaka egin. Horregatik euskal letrak ukitu behar dituzten gaiak, askotan Mariren koban asmatuak izan dira. Hemen ez dago ideologiaren arazorik. Askok esaten ohi du baietz. Anaitasun edo Zeruko Argian baxak hartzekotan arrazoi ideologikoak aipatzen dira. Estrainioena, denak erdaraz datoz ... "Ruégole de me de baja de su apreciada revista por motivos ideológicos" ... "En nuestra última reunión de la comunidad de los muy RR.PP. -X- acordamos por unanimidad darnos de baja de su revista". Edo eta "Por motivos inconfensables (sic)" edo eta "anaitasuna" egin beharrean anaien artean ziria sartzen ari zarete. Zeruko argia piztu beharrean lfernuko sarrera irekitzen ari zarete etab. etab. Beste batzuren irudiz, jadanik Euskal prentsa sendo bat lortu da eta ez Anaitasuna ez Zeruko Argiak ere beharrezkoak direla pentsatzen du jendeak. Gero jende prezagarri horrek begiz eta ipurdiz irensten du erdal prentsa. Cambio 16, Opinión, Deia, Egin, El País, Interview irakurrienak izaten dira. PNVkoek Egin irakurtzen dute ia beraien kontra zer edo zer azaltzen den, baezpadare. Leku estrainio eta apartetan, zenbait erlijioso eta monjak Interview horrialdeak jaten dituzte ea beraien fedea, frogá latz arriskugarrian ipiniz salbatzen den ala ez jakiteko, edo bekatua zertan datzan jakinez, hobe garaitzeko. EMKko eta HASIko militanteak ere, El Aren prentsa irakurtzen ohituak daude. Bakoitza ba, besteak esan dezakeenari bi belarriz ari zaio. Anaitasunak edo Zeruko Argiak esan dezakeenari ez dio inork belarririk ipintzen. Ez dira aldizkari oso seriosak. Ez dute erdara zoragarriak ematen dien seriositasunik. Lehen euskal prentsa nolabait laguntzeko ere, partiduen aginduak zeuden.

Orduan behintzat subskripzioa hartzen zen. Irakurtzea besterik zen. Partiduek ez zuten hainbesterako agintzen. Gure irakurleen kopurua beraz, oso subjektiboa eta faltsua izan da. 15.000 subskripzio edukitzeak ez zuen esan nahi hainbeste irakurle geneukanik. Anaitasuna eta Zeruko Argia hartzen ziren euskaraz zeudelako eta jende askok ez zuen irakurtzen, euskaraz ere zegoelako. Orain aldiz, ez da hartzen, euskaraz dagoelako, jakina.

Gure ondoan bizi den jende askok egia biribilak nahi zituen, betikoek koadratuak zirela aipatzen baitzieten. Orain nahiz eta beti biribilak izan koadratuak nahi dituzte. Ulertzen? Ez ardurarik, nik ere ez.

Euskal letrak oso korapilatsuak izaten dira. Elizako edo jende katoliko gehienek ez dute nahi honelako aldizkari marxista eta galduetan idatzi nahi. Orduan gure irakurleen multzo handi bat kristautarra izanez, benetako fedea edukiz, niretzat behintzat oso errespetagarria eta ohoretsua dena, erlijioari edo munduko edozein arazori buruz, irakurgairik gabe geratzen da. Oraindik esango digute azeriak garela!. Baina benetan ez da ulertzen zergatik kristautar hospetsu batzuk, sekularrak ala ez beste erdal aldizkarietan, gu bezain "galdurik" daudenak, idazten duten. Hemen aldiz, erlijioari, edo kristautar ikuspuntuak ez dituzte ukitu nahi. Misterio itzela da niretzat guzti hau. Erdaraz egiten dena, ikus edozein aldizkaria, ez al daiteke euskaraz ere egin ala?

Baina gatozen harira zeren bide erdian zehar galdu baikara. Bide erditik galtzea askotan pasatzen zaigu. Arrazoiak ugari. Hizkuntza hau ez da oso serioa, gero aldizkaria ere ez, eta ni pertsonalki olgetan egoten naiz denbora guztia; gainera erabiltzen dudana "hirugarren euskalduntzen" erako estilu motzak sasi-izenaz firmatzen bultzatzen nau beti.

Baina ETaren alde lantza bat publikoki hautsi behar da. Nik ez dakit burruka harmatua aurrera segitu behar den ala ez. Edo behintzat ez naiz auzartzen hori esatera. Baina ETarekin gure herriaren zati handi bat dago eta arrazoi handiaz. Hemen ez da ezer konpondu. Konpontzen hasiko direnean ikusiko dugu. Bitartean ETari buruz Donostian egindako bileratan Patxi Iturriozek, EMKko militanteak aipaturiko hitzak gogoratzea komeniko litzaiguke. "Nola eskatuko genioke ETari burruka harmatua baztertzea, gobernu berean lehen bezalako indar zapaltzaileak daudenean?" Egia hori ez du KASeko batek bota. Opinión, Cambio 16 eta gainerako aldizkariak edozer esan dezakete bitartean. Guk bezain zitalki segituko dute.

Aingeruen sexuak ez gaitu sekula kezkatu zoritzarrez.

Sir Jauna

## LEHEN ETA BIGARREN MAILAKO HILAK

Aste honetan hiru heriotze berri gertatu dira biolentki: Katalunian bi eta Euskal Herrian hirugarrena. Alderdi politiko eta erakunde legal asko lasterka ibili dira, Bartzelonan gertaturikoak kondenatzeko. Ostera, Bilbon 18 urtetako gazte bat hil duten arren, ez da ia kondenahotsik ez komunikaturik entzun. Ozta-ozta, beraren hauzoen salhakuntza eta besterik ez. Beste guztiek, dirudenez, ontzat emana dute Efren-en heriotzea; merezia zukeen (?) eta...

Bai! Lehen eta bigarren mailako hilak daude. Batzuren heriotzeagatik publikoki egin behar da nigar eta jantziak urratu. Besterenagatik ez du merezi aipamenik ere egiterik; edo aipamenik egiten bada, hiltzaileen lana(!) justifikatzeko da: ongi egin dute, beren eginbeharra bete baitute...

Eta horrela idazten da historia, mutilok! Beharbada Viola-ri leku bat eginen zaio historiazko liburuetan, honela betiko hilezkortasuna irabazten duelarik. Efren, ordea, ez da inon aipatua izanen.

Eta hurrengoan ere ipuin berbera entzunen dugu. Biolentzia "venga de donde venga" kondenatzen dutenek, ez dute ezer kondenatuko Efren bezalako kasuetan. Horik delinkuenteak —hots, gaizkigileak— direla esanen dizute. Eta ordenu-zaintzaileek eskubidea dukete horrelakoak hiltzeko. Nork emana ote da eskubide hori? Beren kontura hartua ez ote?

Baina goazen aurrera! Analiza ditzagun gaingiroki lehen eta bigarren mailako hilen nortasuna. Nolakoak dira lehen mailakoak? Agintari edo agintari-ohiak, diktadore haundiaren magalean hasi, loditu eta beren karguak hartutakoak, lantegi edo enpresa handiren jabeak, erakunde publikoetako partaideak, botere publiko izugarria dutenak,... Eta



abar. Ikus dezagun orain, bigarren mailakoak nolakoak diren: Sozial-, kultural- eta ekonomikoki marginatu eta baztertuak, justizia sozialaren ederra ezagutu eta gozatu ez dutenak, beren lanindarra gaizki eta infrabalaratuki saldu behar ukan dutenak,...

Informabideak —pertsona eta talde konkretu batzuren eskuetan daude, bestalde— zerebro-garbiketa izugarria egiten ari zaizkigu. Kalamatika franko, baina, informabideen eragina dela eta, jendeak ontzat eta normaltzat hartzen du, Efren bezalakoak hiltzea, eta krimen izugarritzat, Viola bezalakoak hiltzea. Non gaude? Ez ote ziren biak, hain aipatua den pertsonaren dignitate trantzendentalaren jabe? Nor da buru-garbiketa horren indartzaile?

Efren baztertua eta arbuiatua izan da bizi izan den bitartean eta hil ondoren ere. Auto batek beraren biziak baino gehiago balio zukeen. Eta hil ondoren arbuiapen hori lotsagabeki agertu da informabideetan. Mila detaile ttiki baina garrantzizko daude. Adibidez, konturatu al zarete nolako argazkiak agertu dizkiguten? Ia biluzik eta autopsiaren ebakidura lotu edo josia argi ikusteko moduan. Izara batez estalia izatea ez zukeen merezi; izara zikindu eginen zen nonbait. Eta inork eskatu ote dio erantzunkizunik Goardia Zibilari?


Biolentziaren arazoa dela eta, batzuk —lotsa pixka bat edukiz— era eta jatorri desberdinetako biolentziak bereizten eta modu desberdinetan juzkatzen hasiak dira. Ordua zen! Baina beste batzuk —lotsarik ezaz edo— hor diraute lehen mailako hilketak, propaganda izugarritzat eta mundu guztia ongi enteratzeko moduz kondenatzen, eta bigarrenekoak, ostera, isiltzen eta onhartzen. Ez dut uste izenik aipatzerik merezi duenik.

A! Eta ez naiz arituko etarren hilketez. Hauk ez lehen eta ez bigarren; agian n-garren mailako hilkaitira.

R. Garai



# OSTEGUN BELTZA TUNISIAN



Urtarrileko 26a, ostegun beltza izan da tunisiarrentzat. "Tunisia independentearen lehen greba orokorra" izendatu zuten sindikatuek.

Egun horren ondorioz "ehundaka asko" ofizialki esan denez izan dira balaz hilak Tunisiako kaleetan. Polizia eta armadak gogor eraso diote manifestapenari. Errebolta hura iraultza bilakatzearen beldur zen gobernua.

Europar jende asko harriturik eta txunditurik gelditu da. Izan ere, Bourguibaren erregimenak liberal fama zuen. Europarra omen zen, esan ohi zen satisfazioz Europan. Europaren irudi ona ematen omen zuen Afrikan, hemengo beste zenbaitekin alderatuz batipat. Horregatik ez zen uste halako kale-hilketarik Tunisia bakezalean gerta zitekeenik. Hortik harridura.

Zer da hor gertatu dena? Eta zergatik, batez ere?, hona jende ohartuaren galderak.

Bourguiba zahartuz doa. "Burrukalari garaiena" k geroz eta gutiago agintzen du. Destour alderdi bakarrean, beraz, joera bat baino gehiago hasi da jadanik nabaritzen. Habid Achour, sindikatuen buru eta gobernuko kontseilukoa izan berria, jar genezake korrante baten aintzindari. Gobernutik dimittitu egin zuen. Harez gero, sindikatuaren eta gobernuaren artean geroz eta tarte handiagoa dago: sindikatua ez da gehiago transmisio-hede bat, langileen antolakuntza baizik. Egiazko ezkertiarak hortxe bildu ohi dira. Bi polo bezala gerta zitezkeen, horrela, Tunisian: bata gobernuarena eta bestea sindikatuarena. Arriskugarriena zen hau gobernuarentzat.

Bestalde, lehen esan bezala, Bourguibaren agintearen ahultzearekin gobernuaren agintea bera ere ahulduz zihoan. Dozena erdi bat ministrarik, dimittituz, gobernu utzi berria zuten. Giro honetan planteiatu da greba orokor hori. Zer da, beraz, hemen jokuan zegoena? Ez gobernu soilki, baizik eta Bourguiba bera, diote batzuk.

Krisi ekonomikoa da gertatua, batzumentzat. Politikoa, beste batzumentzat. Haserrearentzako eta grebara deitzeko arrazoi ekonomikorik ez da falta. Mundu krisiak biziki nabaritu da fosfatoaren eta ehunaren esportapenetan. Sikateak, bestalde, emaitzik hoberenak lehortu zituen 1977.ean. Emeki emeki besterik ez dira igaten lansariak. Gafsako meatzetako langileen eskabideen aurrean Gobernu gogortu egiten da. Abenduaren azkenean krisi soziala begien bistakoa da.



Gudari historikoak eta aberriaren gurasoak omen dira.


Politikazkoa bilakatuko da laster krisia. Gobernuko dimisioak alde batetik eta UGTT sindikatu bakarra kontrolatu nahia bestetik, aginte hauzia zegoen tartean. Ezin zezakeen gobernuak geroz eta urrutiago zihoakion sindikatua bere bidetik utz. Habid Achour, sindikatuko buruak (eta agintekide izan berriak), arriskua ikusirik, grebara deitzen du. Urtarrilaren 26an kalera atera zen langilea. Eta han gelditu zen zerraldo, hilik.

Bourguibak irabazi du oraingoan. Noiz arte? Gobernu gelditu da agintearen jabe. Zein prezio eta kondiziotan?

Tunisiako kasu bertsua beste askori ere planteiatu zaio edo planteiatuko Afrikan. Afrikako nazioen independentzia, lortu berria da. Herri horietako askok, erdietsi berriko askatasun horregatik, etorkizunari baino errazago begirutzen diote iraganaldiari. Horrela lortu ohi dute herriaren batasuna, gobernatzeko behar duten "consensus" delako hori. Independentzia lortzeko burruka egin duten gizonak agintean daude oraindik: nazioaren "guraso" bailiren dira, adibidez, Senghor, Boumedien, Bourguiba. Nazionalismoa azpimarkatuz, agintea eskuratzea erdietsi dute, kolonizatzailea kanpora bidaltzea. Baina ez, haatik, barneko problemak oro konpontzea. Hor dago kokka orain. Independentzia honen bigarren mementuko zantzu bat izan daiteke Tunisian gertatua ere: kanpoko agintearekin hauririk ez dagoen sasoiaren, barruko agintearekin sortzen dira zezioak. Agintearen kontzentrazio bakarra egon baita herri hauetan. "Gudari historiko" hauk desagertzerakoan, haiekin batera desagertu beharko du agintearen monopolioak ere.

joanes lekerika

## SICCO MANSHOLT EDO PSOEREN MEHATXUAK



Entrepesarako Teknikal Eskola Nagusiak deiturik, Siccó Mansholtek, Internazional Sozialistako presidentorde izandako eta Europa Berderako plangintzaren aitak, hitzaldi bat egin zuen Donostian Urtarrilaren 16an, gaitzat "Nazionalitateen Europa" harturik.

PSOeren eskutik zetorren jaun honek, egia esan, ez zigun ezer berririk agertu. Ipar eta Hego Euskal Herriak penintsula eta kontinentearen artean bete lezakeen bitartekotasuna gora behera, hots, beronen ekonomi eta politik existentzia posiblea gora behera, europar statu quozaleek ez omen gaituzte onhartuko.

Espainiako PSOeren eritzi aski eta sobera entzunak errepikatu zizkigun, mehatxuka gainera; hitz guttitan: euskaldunok txintxo eta jatorrak baldin bagara eta espainolekin ongi konpontzen, hortik urrunera hel gaitetzkeela autonomi bidean. Bestela, ordea, berjabetasun bide bihur, gaizto eta separatistatik, orain arte bezala, segituz gero, ez genuela inolako laguntasunik espero behar".

Eta, izan ere, guk geuk behintzat, ez genuen hortik ezer espero, baina gurera deitu eta horixe aurpegira esatea, lotsagabekeria ez bada, guttienez deskortesia nabaria da. Ez dugu ahantzi behar geure etorkizuna guri doakigula inori baino gehiago, eta, horrexegatik, geuk erabaki beharko dugula zer egin, Mansholt holandarrak edo PSOE espainolak guri kontseiluak eman gabe. Horrelako mehatxu eta mustur sartzeak nazioartekotasun guztien kontrako intrusismoak dira, besterik ez:

Mundu guztia faits accomplis edo "eginak ongi daude" lako politikaren alde omen dago, dakusagunez. Unibertsitatean nengoela, histori irakasle eta artxibari eskuindar amorratu batek behiala esandakoa datorkit burura: "Nazioak ("Estatuak" esan nahi zuen) Historiaren ondorio jatorrak dira, eta dauden daudenean errespetatu beharra dago, egon behar zutenak berak direlako". Euskaldunon separatismoaren kontra orduan eskuinetik esandako hitz haietan ordea, Siccó Mansholtek eta PSOEk oraintsu ezkerretik (?) esandakootan bezalatsu, egia biribil bat datza: Herri zapalduok geure Estatu propio eta berjabea geure indarrez lortuko dugun une berean, ez garela gehiago ukatuak eta zapalduak izanen, eta ordurarte gu ezexistentziaren zokora baztertzeko erabiltzen zen Historiak berak geure jaiotza beharrezkoa justifikatuko digula.

Pernando Amezketarren egia, halebegia: "dirinak ba dira, izan ere, ba direlako".

Xabier KINTANAK

# elkar ikuska

## IKASTOLEN ESKEAK MADRILEN



*“Euskal Herriko Ikastolen Elkarte”ko partaideek ondo ezagutzen dituzte Madrilera daramaten bideak. “Educación y Ciencia”-ko ministrariak “beste lan asko zituela eta”, euskaldun hauekin zuen elkarrikuska hiru aldiz atzeratu zuen, gure ikastolen ordezkariak bideratuak zirela. Azkenean, joan zen Hilbeltzaren 25ean ikastolen ordezkariak Cavero jaunaren bulegoetara heldu ziren eta baita ere bi ordu t’erdiz espainiar ministrariarekin egon. Ordezkariekin batean Federico Zabala, Enrike Iparragirre eta Goio Monreal parlamentariak egon ziren. Gaurko elkar-ikuska Bizkaiko Ikastolen Elkarteko ordezkari batekin dugu, Txetxu Aurrekoetxea erandiotarrarekin.*

### ELEBITASUNA

*Egun hauetan elebitasunari buruzko dekretu bat lantzen ari dira Madrilan, orain dela bi urte egin zena alde batera uzteko. Dekretu berri honetaz ez dute oraindaino berririk Ikastolen Elkarteko ordezkariak. Zer espero duten jakiteko, Txetxu Aurrekoetxeari zera eskatu diogu, Dekretu zaharraren ar-*

*tikuluak ikusiz zein eratako aldaketak itxaronen dituzten dekretu berrian.*

*- Dekretu “zaharreko” artikulua bostpasei dira —dio Aurrekoetxeak— etd hitz laburrez hauk dira nahi ditugun aldaketak: lehen artikuluan, adibidez, nahiz eta euskara, katalana etab. “hizkuntza nazionaltzat” onhartu, hauen irakaskuntza ez da obligazio bat bezala ikusten eta nahi dutenek baka-*

rik irakats eta ikas dezakete. Beraz gaztelania da, dekretu zaharrean, hizkuntza obligatu bakarra. Dekretu berrian hizkuntza hauen irakaskuntza eta ikaskuntza legez behatua izatea espero dugu. Eta gehiago: gure ustez euskara eta beste hizkuntzak "prioritariak" izan beharko lirake, gaztelania baino abantaila gehiago izanez irakasteko orduan. Elebitasuna gainditzeko gure hizkuntzak abantaila hau behar ditu. Bigarren artikulua zaharrean zera aurkitzen dugu, Unibertsitat Zentruetan hizkuntza "nazional" hauk bultzatuak izango direla, bai, baina unibertsitariak ez dutela hizkuntza horik ikasteko obligaziorik izango, ezta gutxiago hizkuntza hauetan unibertsital lanak egiteko.

— Dekretu berrian gure hizkuntzan lan egiteko ahalmen hauk obligazio bihurtzea itxaron duzue?

- Itxaropenik ez dugu galtzen, baina lege aldetik gai hauetan "behartzea" urrats haundi bat izango litzateke. Hirugarren lege "zaharra" ez dago gaizki, baina zera dio "El ministerio de Educación y Ciencia, en colaboración con los organismos e Instituciones lingüísticas correspondientes" lan egingo duela. Hemen argi utzi dugu geuretzat Euskaltzaindia dela hizkuntza aldetik erakunde serioa bakarra, beste "hizkuntzalari" talde batzu alde batera utziz. "Preescolar" deritzon titulazioa lortzeko zera lortu dugu, titulu hau Euskaltzaindiak edo bere unibertsital antolakunderen batek ematea. Dekretu zaharraren beste artikuluek ez dute garrantzi handirik. Hitz laburrez, dekretu berrian Ministraritzak Euskaltzaindia laguntzaile bakarra bezala onhartzea eta geure hizkuntza irakasteko eta ikasteko obligazioa finkatzea espero dugu. Lehenengo helburua lortua dagoela esan dezakegu, ez horrela bigarrena.

## MINISTRARIAREKIN ELKARRIKUSKA

— Zer nolakoa izan zen Caverorekin izan zenuten elkar-hizketa, Txetxu?

- Ba dakizu nolakoa izaten den bilera hauen giroa, oso irribarretsua, protokolozkoa. Elkarrikuska hasi bezain laster Ministraritzako sekretari teknikoak gaurko laguntza ofizialaren zerrenda irakurri zuen eta ondoren hemendik aurrera nolakoa izango den esan zigun.

— Laguntza ofizial honen kopuruak ba al dituzu?

- Bai. Ministraritzak emandako zehaztasunak hauek dira: Gipuzkoan 289 "unitatek" —ikasgela, hain zuzen— o/o 100eko subentzioa hartu dute eta Bizkaian 39 ikasgela izan dira honelako laguntza izan dutenak. Probintzia bakoitzean hauk izan dira hartutako diru laguntzak: Gipuzkoan 228 milioi pezeta, Bizkaian 61 milioi, Nafarroan 5 milioi eta Araban 3 milioi t'erditako laguntza izan dute.

— Eta hemendik aurrera nolakoa izango da laguntza?

- Ministraritzak egindako promesak hauk dituzte: 1978. urtean subentzio bat izango duten euskal "aulak" bitu egingo dira; gaur diru laguntza osoa ez duten unitateek o/o 100 laguntza izango dute 1978.ean. Hirugarren promesa zera izan da, diru laguntza hartu duten ikastetxeetan aurten sortutako diren unitate berriak ere laguntzea.

— Diru kopuruetan, laguntza guzti hauk nolakoak dira, zenbat milioitakoak?

- Hementxe dituzu, baina oraingoz ez ditugu argitaratu nahi.

— Eta "preescolar" mailan diru laguntzarik izango al dugu?

- Ez, Ministraritzak dioenez gaurko legeak ez baitu honelako laguntzarik zehazten. Gainera zera esan ziguten, ez zutela preescolar mailako daturik. Guk datu guztiak ditugula erantzun genien, baina alferrik...

— Elkarrikuskan EGBko Zuzendari Orokorra egon zen: zer zioen ikastolei buruz?

- Ikastolak lege berriaren barruan sartzeko ahaleginak egin behar ditugula. Bestalde, Moncloa-ko Paktuá dela eta, irakaskuntza pribatuari ematekoak ziren laguntzak kendu behar izan dituztela esan zigun, nahiz eta joan zen urteko laguntze-epa luzeagoa eginez oraindik laguntzaren bat maila honetan eman.


— Ofizialki Ikastolak ez pribatu, baizik eta publiko arlokoak bezala onhartuak izateko posibilitaterik ikusten al duzue?

- Galdera berbera egin genien Ministraritzakoei eta hau erantzun ziguten: 1978-79 ikastarotik aurrera ikastolak munizipioen babesean jarri nahi dituztela. EGBko zuzendariak asmo hau aurrera ateratzeko oztopo nagusi bat ikusten zuen, Estatu-ko irakasleak funtzionariak izatean eta ikastoleta-ko irakasleak guraso berberak aukeratuak izatean.

— "Preescolar" mailan ikastola asko direnez, ez al zenuten laguntza lortzeko beste formularen bat asmatu?

- Askok hitz egin ondoren, Ministrariak formula berri bat proposatu zigun: "complemento de ayuda a la enseñanza en euskera", "el euskera" irakasten duten ikastetxe guztiak honela baztertu. Gero zera esan zigun Ministrariak, ikastola guztiak lege barruan sartzeko prest dagoela. Ikusten duzuen bezala, "oso irekia, oso atsegina" agertu zituztugun ministraria...

— "Preescolar" mailarako zenbat milioi eskatu zenioten Ministrariari?



- Egia osoa bota genion beldurrik gabe: sei-ehun milioitako laguntza behar dugula maila honetan. Aurpegi arraroa jarri zuen, baina guk egia biritan esan genion.

- "Preescolar" mailan irakasle askok ez dute titulurik: nola gelditu zen arazo hau elkarrikuskan?  
- Guk proposatutako formulekin ados gelditu ziren: titulurik ez duten irakasleei Euskaltzaindiak edo Unibertsitateak zabalduko dizkie tituluak.

- Ekonomi arlora bihurtuz: zer zioten Ministraritzan inbertsio berriei buruz eta ikastola berriak egiteko behar diren diru laguntzei buruz?

- Nik esan nien 200 milioi pezeta behar ditugula aurtengo inbertsioetarako eta inbertsio hauk "ente autonómico" berriaren transferentzi komisioren bidez lortu beharko ditugula erantzun ziguten. Ikastola berriak egiteko, Ministraritzak "Banco de Crédito a la Construcción"ekin harremanetan dagoela esan ziguten, kreditu berriak prezio "beretxekin" egiteko asmoz.

## IKASTOLAK BIZKAIAN

Elkarrikuska honen berri jakinez gero, Bizkaian nolako den Ikastolen gaurko egoera galdetu diegu Txetxu Aurrekoetxeari, bera baitago Ikastolen Elkarte barruan.

Mementu honetan Bizkaian, "preescolar" mailan, 5.623 umek ikasten dute euskaraz 194 irakasle dituztela; E.G.B. mailan, beste 5.472 ikasle daude Bizkaiko ikastoletan, 257 irakasleren babesean. B.U.P. mailan gaurkoz 156 ikasle elkartzen dira, irakasleak 33 direla. "Preescolar" mailan irakasle bakoitzak 30 ume ditu, E.G.B.ko irakasleek 21 eta B.U.P.ekoek 5 ikasle. B.U.P. maila, oraingoz, Bilbo herrialdean antolatuta ahal izan da.

Kopuru hau ikusi ondoren, Txetxuk agertuko dizkigu diru kontuak.

- Gure ikasleen gurasoek ordaintzen dutena hauxe da —dio Txetxuk—. Presupostu osoko o/o 64 ordaintzen dute, garrarioa presupostu honen barruan hartuz eta elikadura kontua baztertuz.

- Elikadura kontuan, zenbat ordaintzen dute gurasoek ikastaro bakoitzean?

- Administralki, ikastola bakoitzak autofinantzapena bilatzen du arlo honetan. Bizkaian, gainera, zazpi herrialdeetatik, hiruretan bakarrik sortu da "jantoki" zerbitzu hau. Plentzia-Mungia herrialdean, elikadura kuota 10.000 pezetatakoa da ikasle bakoitzarentzat eta urte osorako. Durango aldean, hileroko 309 pezeta kobratzen dute, baina hau esperimentalki egiten ari dira. Bilbo aldean, hau ditugu kopuruak: Sondikan, 8.250 pezeta; Abusun, 14.400 pezeta; San Adrianen 10.000; Karmelon, 23.000; San Nikolasen, 22.000; Lauron,

9.000/13.000 pezeta, tarte horretan; Alzagan, 10.000 pezeta.

- 1977/78 ikastaroan, nolakoak izango ditugu gastuak eta diru hartzeak?

- Gure ekonomistek diotenez, gastuak 340.000.000 izango dira eta diru hartzeak 306 milioitakoak, hain zuzen, 34 milioitako defizita.

- Eta nola banatzen dira gastuak eta diru hartzeak?

- Gastuetan, ikastoletan lan egiten duten pertsonak egingo dute gastuen o/o 74a, zerbitzuek o/o 17 eginek. Kapitulu alaiagoan, diru hartzeetan, kobraketetan, ikasleen gurasoek o/o 58a emango dute; laguntzaile partikularrek o/o 12a; Estatuak —gure ustez, noski— o/o 19a eta ez dakigu nola bete o/o 10eko defizita.

- Herrialde guztietan berdina al da defizita?

- Zoritxarrez herrialde guztiek dute defizita, baina herrialde batek defizita haundia duen artean —32 milioitakoa— beste batek 970.000 pezetatakoa bakarrik du.

- Joan zen ikastaroko kopuruekin gonbaratuz ezberdintasunik ikusten al da?

- Ez, herrialde gehienek defizita izan zuten joan zen ikastaroan, naiz eta txikiagoak izan. Aurtentzen —32 milioitako defizita izango duena, ihaz 5'5 milioitako superavit bat izan zuen.

- Zenbat ikastola daude gaur "Bizkaiko Ikastolen Elkarte"ren barruan?

- Bizkaian 63 ikastola daude. Hauetariko 35, B.I.E. barruan, beste lau B.I.E. barruan sartzeko paperak egiten ari dira eta 24 ikastola oraindaino B.I.E. tik guztiz kanpo, nahiz eta hauetariko batzuk Elkarte barruan lehen bait lehen sartzeko asmoak izan.

- Ikasleak kontuan harturik: zenbat ikasle daude B.I.E. barruan?

- B.I.E. barruko ikastolek ikasle gehienak hartzen dituzte. Bizkaiko 11.251 ikasleotariko 8.413 daude Elkarteko eskoletan.

## ELKARTE ZABALAGO BAT

Euskal Herri osoko ikastolen konfederakunde bat osatzea premia handikoa dute Elkarte hauetan dabilten pertsonak. Batasun hau behar beharrezkotzat dute guztiok —edo ia guztiok. Eta konfederakunde honen barruan, noski, Iparraldeko ikastolek ere beren papera izango dute, gaur Hegoaldeko elkarte bileretan duten bezala. Aurrera, ba, jo ta ke.

X. A.

## NATUR EREMUAZ (II) ZER MAITA, HURA ZAIN



*Bilbo higuigarri hau posible egin dutenak "gure" burjesak al dira?*

Giza talde bakoitzak, mendeetan zehar, bere bilakabidean, haietan luzaro bizi izan ondoren, lurralde batzu "bereak" kontsideratu ditu. Honela ethnia bat iraunkorki bizi izan deneko lurraldea, berez, nazio horren oinharri geographiko naturalizat jotzen da eskuharki. Barruti horretan bizi, hazi eta aurreratzen denez, herri bakoitzak, bere bururen jabe denean behintzat, ongi kontutan hartzen du bere lurraldea eta hura zaintzeko, aberasteko eta edertzeko ahaleginak egiten ditu.

Herri baten geographian natur degradapen basatirik gertatzen bada, hor, inolako zalantzarik gabeko, kolonialismoaren seinale ageria dugu beti, esplotatzaileek ez baitute beren etxea horrela sekula hurrupatzen. Honen kariaz, seriozki gonbaratzekoak dira —eta hatzamarrez guztiok dazaguzkigunak seinala daitezke— Bartzelonako, Madrileko eta Bilboko burjesak, eta hor argi ikusiko genuke zergatik haiei "nazional" kalifikapena ongi doakien bitartean, gurekoei, oro har, inola ere ez dagokien.

### EUSKAL EREMUA DELA ETA

Herri gobernu batetarantz omen goazela, ordea, hemendik aurrera ondo kontutan hartu behar harko dugu euskaldunok arazo larri hau.

Eremuz haundi diren Estatuak (Sovietar Batasuna, Estatu Batuak, Txina, Kanada, India, Australia...) naturari zenbait tokitan eta garaitan abusu

batzu egin arren, ez dukete horregatik askorik sentitzen, eta toki batetan egindako kaltea, esperientzia hori berriro ez egiteko lezio ona izateaz gainera, lurraldearen zabaleran ez da nabariegia azaltzen. Gure kasua, ordea, ez da hori. Besteak ariketa atomikoetan saiatzeko aski leku badute ere, guretzat era horretako edozein laprastada fatala litzateke. Euskal Herria eremuz nazio ttikia da, oso populatua gainera, eta natur erreserba ttikitakoa. Horregatik Herrian egindako astakeria guztiak, noraezean, denok pairatu beharko ditugu betiko.

Lurrarenganako giza ardura kolektibo eta abstraktua Euskal Herrian geure naturaren ardura konkretua dugu euskaldunok. Hemen bizi gara, hemen bizi gara eta bertan eta bertatik bizi beharko dute gure ondokoek. Geuk erabaki beharko dugu —eta kezkarriagoa dena, *diegu*— non eta nola bizi: paradisu ala ifernu, lorategi ala sastoki, Euskal Herria geuk moldatu bezalakoa izan eta izanen da.

### HIRIA: OASISEZ INGURATURIKO BASAMORTUA


Baso-itsasoez, berauk lantzen dituen gizonari naturarekiko harreman zuzenak eskaintzen dizkio. Gizonak hor bai faunarekin eta bai florarekin lotura aberasgarriak lortzen ditu, animalien ohiturak eta bizimodua ezagutu eta landareak nolakoak eta zertarako diren jakin. Ezaguera eta jakituria hori, esperientzian oinarritua, gurasoengandik seme-alabengana artezki iragaten da, katearen mailetan bezala, lehendik hona etenik gabe datorren kultur tradizioa osatuz. Ipuinak, esaerak, usteak..., gainera, hortxe dute beren iturria.

Industriaren haroan, lehenik baserritarrak artzainari eta beronek lehenagoko ehiztariari bezala, kaleak baserriari lehentasuna kendu dio, eta horretan, hileta jo barik, lehenagotiko prozesu baten etapa bat gehiago besterik ez da ikusi behar. Gizona, hiritarra egin da eta bizimoduz hobetu bada ere, beraren asabek naturarekin zerabilten tratua galdu egin du. Asfalto arteko parke eta lorategi sarriegitan urriak dira, nolabait, ideialdu eta stylizaturik, bazterturiko naturari gizonak egin dizkion oroitgailu bakarrak, baina batzutan —ez beti— ederrak izan arren, artifizioz eginak direlarik, faltsuak gertatzen dira, berezkotasunik gabeak. Horregatik ezina dute naturarekiko lehengo harremanak berriztatzea.

Bestalde, baserriko lanbide neketsu eta maiz miserabletik iheska, hirira etorritako baserritarkumeek, sarritan, beren lehenagoko bizimodu ilunaz ez gogoratzeko edo, naturari mesprezio nabaria diote, beren gurasoei ikasiez ahantzirik, hartazko amnesia osoa ez dutenean. Eta horrela sortzen da hiritar tipikoa, bizimodu oneko pertsona deserritu eta deskulturaztatua.

Hiriko espezializapen gero eta handiagoren kausaz, seme-alabek ez dute gehienetan gurasoen

ofizio berbera izaten, eta, horrexegatik, alferrik lukete beraien esperientzia aberasgarria jasotzea. Gurasoengandik seme-alabengana zetorren kultur katea, horrela, supituki, hausten da, azken mugan —Euskal Herrian ezin ahantzizkoa— kulturaren oinarri eta adierazpidea bera, hizkuntza, baztertu arte.



*Euskal Herria ttikiegia da honelako jolasetarako, jaunok!*

### BITARTEKOKERIAREN ONDORIOAK

Kaletarrantzat izen generikoak izaten dira, naturari dagokionez, zentzua duten bakarrak: *zuhaitzak, txoriak, piztiak...* Gehien gehienez, ba dakikete, bai, *haritza, bagoa, lizarra, gorostia...* “zuhaitzak” direla, baina aurrean ikusiz gero ez litzukete elkarrengandik bereiztuko. Eta animaliekin beste horrenbeste.

Naturaren ezaguera, horregatik, gurasoengandik barik, bitartekoen bidez egin behar da: maisu, maistra, andereño, irakasleak horrexetarako daude, hain zuzen.

Gaur asko eta asko mintzatzen da gurasoek beren haurren irakastegia hautatzeko duten esku-bideaz. Ez horrenbeste, ordea, kolektibitateek —herriek, nazioek— beren kultura propioaren arauerako eskolak autonomoki eratzekoaz. Hau guztiau ongi ez eramatetik datozen ondorioak bistan ditugu: bitartekokeriak, inoren eskusartzeak (Estaturarena, ideia ezberdineko irakasleena, erlijioarena...), gurasoen baztertzea, hitz batéz. Hor gurasoek ez dakite ezer, maisuek, ordea, dena. Eredu imitagarria berauk bihurtzen zaizkio haurrari, eta ez etxekoa edo herrikoa.

Eta irakaspenak, naturari buruzkoak bereziki, kabinetekoak bihurtzen dira, ez bizitzari aplikatuak. Menditiko ibilaldi atseginetan baserritarrak, landare eta animalia erreal, ikusi eta entzunez bere seme-mari kondatzen zizkionak, orain ikasgelako pro-saikotasun hotzean azaltzen dira, irudimenerako eta giza zentzazio aberasgarrietarako leku desegokienean halegia. Eta irakasleak, gainera, maiz ez ditu sekulan ikusi ere egin han parra-parra esplikatzen dituenak. Ez dezagun deus esan, jakina, gure kasuan bezala, gurasoen zozo, *bele*, *arrano*, *txaxangorri*, *sahats*, *ote*, *elorri* edo *zumarrak*, maisuaren ahoan *tordo*, *cuervo*, *águila*, *petirrojo*, *retama*, *aulaga*, *espino-albar* eta *olmos* bilakatzen direnean. Orduan haurrek hitz-esangura arteko loturak oro galdu egiten ditu, horrela belaunaldien gainetiko katea erabat apurtuz.

Ez da hori bakarrik. Eskolako textuak, askotan, haurrek inguruan sekula ikusiko ez dituen animalia eta landareez mintzatuko zaizkio: olibondok, Amazoniako oihanak, tigreak, boak, marrazok, ezpatarrainak..., hiri ondoko herrisketan usu aurki daitezkeenez ahantzirik. Ondorioz umeari mundu irreal bat sorterazten zaio, bera bere ingurutik areago deserrotzera bultzatuko duena.

Esandakoaren esanplu bikainena Bilboko adiskide batek behin kondatu zidana dateke. Behin bere alabarekin kalean zehar zihoan eta halako batez, asto bat ikustean, bost urtetako neskatoak honela galdetu omen zion: "Aizu aita, hori "ciervo" bat al da?"

Xabier KINTANAK



Zer irakats, nork irakats, nola irakats, zertarako irakats?


Donostiako estiloa.

AUZMENDI



AUZMENDI Sastre Vergara 1






## *Has zaitetz gutaz bestela pentsatzen.*

Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko proiektio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabidean izan garen baino hobeak izan gaitezen. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongiegi dakigu. Geroa hementxe dago eta.




CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

*geroa hementxe dago.*



## HAURRA AKTIBITATEAN HAZI ETA HEZI EGITEN DA (II)



Imajina hau iragantzat (?) ba dugu ere, beraren helburuek —ordena, uniformitatea, menpekotasuna, masifikapena etab.— gure artean diraute.



Ikasgo mekaniko, indibidualista eta konkurrenteak sozialismoranzko bidea ote?

### ESKOLA ETA HAURRAREN HAZKUNDEA.

Eskola Instituzioa, familiak duen hezitzaile zereginari laguntzera dator. Gizartea, bere kideen onura bilatzerakoan, hau eta beste zenbait hutsune betetzeko bidean jartzen da. Hauetariko bat, bada, haurraren hazkundera da, adimenaren aurrerabideaz ulertzen duguna.

Horrela izanik, gure Herriko familiek dituzten mugak eta akatsak ikustea baino ez dugu, eskolaren lehen jomugak zeintzu direnez jabetzeko. Familian eta beraren inguruan zenbait hutsune eta ezintasun ikusi ditugu, dedikazio eta prestakuntza berezi



Gaurko eta betiko autoritatearen argudio sinisterazlea.

mugatuak, medio ekonomiko, espazio eta beste zenbait medioren falta,... Familia ezin daiteke hel haurraren hazkunde orokorra betetzen duten zenbait arlotara, eta hauei Heziketa Publikoak egoki eta zientifikoki erantzun behar die.

Psikologia eta Pediatriazko estudioak bat dotoz, haurraren zenbait berezitasun adieraztean: haurra bere inguruari so dago; ohartu, behatu eta makina bat eragingarriri erantzun egiten dio; haurra dinamiko da, energia eta aktibitate hutsa; higitu, maneiatu, esan, galdetu, egin beharra du; bere mundua, bizi eta harremanetako mundua menperatuz, bere burua finkatu nahi du; izaki librea da, berezko lege, interes eta jomugekin. Haurra hazten ari den izaki bat dela aiantzi gabe.

Ez goaz Heziketa Publikoaren azterketa oso bat egitera. Honetan, Eskolak haurraren berezkitasunari, dinamismoari, inizatibari eta beraren hazkunderari ematen dion garrantzia hartu nahi izan dugu erdigunetzat. Ikusmira honetatik, gaurko Eskolaren Helburuak, Programak eta Metodoak aztertzerara gonbidatzen zaituztegu. Eta ez bakarrik Ohizko Eskolarenak, baizik eta berrizendatu den Eskola Aktiboarenak ere.

#### OHIZKO ESKOLA. Helburuak.

Hitz guttitan esanda, gizarte ezarriak bere gisara moldatu nahi du gizaki berria. Eredua, gizarte honek bere intereserako duen gizon heldu eta tipifikatua da. Hau dela eta, Eskolak ahalik eta materiale moldakor eta eskurakoiena behar du, eredu horren kopia egokienak lortzeko.

Adibide bezala, buztinlaria har dezakegu. Forma fin eta ondo bukatuak sortzerakoan, buztinlariak buztinik garbiena eta moldakorrena bilatuko du. Hari koxkorak, lur zati gogorak edo beste oztoporik duenak, ez du balio; oso zaila izango baitzuen, honelako materialez bere nahia burutzea.

Gogora ditzagun, irakasleak zigortzen dituen haurren berezitasunak. Geldiezina, inkonforme, diziplina autoritarioa onhartzen ez duena, gizarte honen legeei "Amen" esaten ez diena, Eskolak baztertu egiten du, taldetik atera egiten du; oso elementu arriskugarria da, besteen sumisioa apur baitezake. Haur hauei zailak, inadaptatuak eta Zentru Berezieta bidaltzekoak deritzegu.

Esana dugun bezala, haurra "egiten ari den nagusia" du gizarte honek; eta lortu nahi duen nagusi eredu hori, ondo biribilduta dagoen gauza da. Horrela gizarteak, autodefentsan jokatzuz, bere interesen aldeko burruka honetan, ez du sekula onhartuko, haur original, kreatibo, autonomo, berezko-egile. Azken batetan, beste mediorik aurkitzen ez bada, edo azterketa selektibotan, edo oposizioan, edo eta abarretan bidea moztuko dio, norakoa eta nolakoa gizarteak berak markatzen baititu. Helburu horrekin, ideologia, balore eta funtsak markaturik datoz, hitz batetan esanda, pentsa-; senti- eta egiteko era (egite hori errepikatze hutsetzat hartzen dugularik, noski, sekula ere ez sortze edo esperimentatuztat) markaturik dator.

Buztinlariak bilatzen zituen garbitasuna edo moldakortasunaren antzera, Ohizko Eskolak errezeptibitatea eta pasibitatea bilatzen ditu, haurraren berezko interes, kreatibitate eta hazkunderaren guttiz aurka, hain zuzen.

#### PROGRAMAKUNTZAK

Hasteko, esan dezagun, programakuntzak haurren aktibitatea bultzatzen duten aldetik aztertuko ditugula. Zer esanik ez, programakuntzen azterketak, ba du gure oraingoa baino ikuspuntu egokiagorik, baina ez dugu utziko 2 datu aipagarri azpimar-katu gabe.

Lehenengo eta behin, eskolak ukan behar zuen zeregin eragingarriaren orde, programakuntzen estatikismoa salhatu nahi dugu.

Programakuntzek eta funtsek eta konkretuko eskola bultzatzen dute, kontserban sartutako ezagupenen transmititzailea, hain zuzen ere. Horretaz, "kulturatzat" gizarteak lortutako definizio eta formulen bilduma transmititu eta buruz ikas erazten dute. Haurrak, pixkana-pixkana, irentsi egin behar du jakintsuek egin dutena, hots, besteren erresultatuak; irakasleek eta textu-liburuek egokitutako dosietan emango dizkiote. Eskola honek ez daki kulturaren dinamika zer den. Eskola honek ez du kontutan hartzen, berak zabaltzen dituen erresultatu horien prozesua ere: bilatze, ikertze, sortze eta autoebaluatzea, hain zuzen. Programakuntzek ez dute zientziaren gerokoan peatsatzen; emaile hutsak dira, ez diote haurrari lorketa berriak aurkusi eta lortzeko aukerarik uzten, ez eta askoz gutiago ere horretara bultzatzen.

Programakuntzak, azterketa-gaiak dira, bloke hitxiak, mugiezin eta iraunkorak.

Orain artekoa, haurri inposatzen zaion pasibitatea frogatzeko nahiko bada ere, beste berezitasun bat ere ahanzezina dugu: Programakuntzek ez dute inongo errealtatearekin loturarik, zeharo abstraktuak dira.

Beraien prestapenean ez dira kontutan hartu, haurren bizingurua, interesak, adimenaren hazkundeak etab. Ematen zaizkion ezaguerak, haurrak ez ditu behar; hori dela eta, ez ditu bilatzen, ez zaizkio interesatzen. Ezaguera atzerritarrak, zehazpengabeak, nagusiei oinarrizko deritzenak, haurren bizitza, interes eta zaletasunekin zerikusirik ez dutenak, ez zaizkio baliagarri.

Errealtatean eta errealtaterako ez den eskola honen aurka, mugimendu indartsu bat zabaldu da: Eskola gabeko Heziketa. Gu soluzioarekin ados ez bagaude ere, baieztatu egiten dugu honen abiapuntua: Haurrak mundu konkretuan bizi behar du, bere ingurua ezagutu, aztertu eta eragin behar du; errealtatean hazi eta hezi egin behar du; honela, Ohizko Eskola kontra-hezitzailea da.

Fakultate abstraktuak aitzinatu gabe dituen haurrak, ezin du programakuntzek ematen duten medio irreal horretan erantzun. Berez, kontzepzioz ere, zeharo zentzugabea deritzogu medio abstraktu horretan haurra sartzeari.



Metodo hauk aktiboak dei daitezke?

#### METODOAK

Nolako helburuak, halako programakuntza eta metodologia ukanen dugula argi dugu, noski. Baina metodoek berek emango digute, prezeski, haur hazkudearen posibilitatearen berri.

Ohizko ikasgela baten errepresentazio grafikoa aski adierazgarria da: Haur talde bat, ugaria, jarleku ordenatutan lerroka eseria, geldi, ixilik, irakasleari adi, zeinek, harbelean edo mahai lerro artean ibiliz, ezin ukatuzko azalpenak zabaltzen bai-

titu. "Ordena" hau norainoko berezkoa den, irten eta geroko zaratotsak eta lasterketek adierazten digute. Kontrast izugarria, benetan, eskolako egoeraren eta kanpokoaren artekoa.

Eskolak ordena, ixiltasun, aditasun, irakasle-ikasle hierarkia, onharpen eta errespetu ekanduak erabili eta sarrerazten ditu. Haurren kreatibitateak, beha-, azter- eta maneiatzeko egarriak, haurren beraren egite eta hazkudeak, konponbide ezina dute benetan, metodo hauekin. Haurrak etengabeko eragingarrien jarraipen bati erantzuten dio, interesgune batetik bestera pasatzen da bizitasun izugarritz. Eskolak, ostera, zigor eta kalifikapenen beldurraz, geldi ukan nahi du ordu luzetan; eta, ikasturte hasieran emandako arrazoi intelektual eta "helduak" direla medio, urte osoz, asignatura baten estudioan interesatua.

Eskerrak, metodo hauetan ere, haur batzuk atrofia horik gainditzeko inizatiba dutela.

#### "ESKOLA AKTIBOA" DERITZONA

Eskola gabeko Heziketaren mamua dela eta, moda berriak eta abar direla eta, gure buruei sinesterazi egin nahi diegu, Ohizko Eskola iragana dela, historiaren gaia dela. Horretarako, hitz eta izenez berriztu dugu; ez, ordea, izanez eta egitez.


Hitz laburrez, metodoak berriztu nahi izan dituztela, baina helburuak ez, esango genuke. Hauxe da gaurko heziketaren kontraesana, zeren gaurko botere politiko eta ekonomikoek beren interes mugiezinak hobeto betetzeko erabili nahi baitituzte Psikologia eta Pedagogiaren lorketak. Argi ditugu paktu honen ondorioak: Irakaslearen azalpen aspergarriak, testu-liburu apain eta deigarriekin hornitzen dira; eta ikasleei galdekizun aurreginak ematen zaizkie, nahi dena irakur, idatz eta irents dezaten, fitxa miragarri eta goiraipatutan. Aktibitate kreatorailetzat, definizio eta enuntziatuen berridaztea, errepikatze eta grafiazko ariketa hutsa aurkezten da. Irakasle, liburu eta metodo berriek betiko gai eta eskema magistralen ikasketa motibatu nahi dute. Eta gero, asimilazio eta memorizazio egokiago baterako, -ikerketak estatistikoek lagun-, "a posteriori"ko ariketa batzuek proposatzen dituzte: fitxak, laburpenak, grafiko, mapa eta irudien kopia, etab.

Honetan ere ez du haurrak berezko aktibitateerako eta bide berrien zabaltzerako aukerarik.

Guk, ostera, Psikologia eta Pedagogia berriarekin hauxe baieztatzen dugu: haurren motibazio bakarra aktibitateerakoa edo aktibitatearen bidezkoa da. Aktibitatea izango da gero, informazio beharrezko ekarriko duena, asimilazio eta adaptazio berriak bultzatuz eta hazkunde orokorra garrantzuz.

Saioka Taldea

# EMMANUELLE



Hamaikatxo aldiz "Emmanuelle" hitza entzun dugu eta gure gau luzetako amets asko berba misterios horrekin betetzen saiatzen ginen. Lagunarteko eztabaida anitz —pornografia, erotismoa, zentsura, galarazpenak,...— atzerrian edo bestaldean ikusteko parada ukan duen urlia- ren eritziaz aberastuta, hasperen sakonetan bukatzen zen... Eta denbora luze igarota, gure Bilbo erreakzionari eta atzerakoi honetan, eztanda bat bezala, Emmanuelle bera, egiazkoa eta zeluloidezkoa etorri zaigu.

Eta bilbotarrek parada ukanik, Emmanuelle ikusi gabe ezin utzi, eta ikusi dute: hiru zinetan jendea gainezka. Era guztietako jendea: aita familiazkoak, bere sendikoei gizartean gaur egun toleratzen diren gordinkeriak debekatzeko; emaztegabe erreprimituak ikustekoak ikus- tean txistua irensteko; neskatila gazteak esaten dena egiaztatzeko; muti- ko gazteak egiten dena ikusteko; bizitzako gaietan ez-hezituak metodo audiobisualetaz ikasteko; progreak zein txarra den baieztatzeko; listoak zein ebakitze dagoen konfirmatzeko; tontoak... tontoak filme hori zine bezala kritikatzeko.

## FILMEAK PUBLIKOAREN NEURRIAN

Gauza harrigarri bat ikusten ari gara: Amerikarrek nola "mendeko filme" bat urtero egiten duten: "El padrino", "Tiburón", "Terremoto", "La guerra de las galaxias" ezizenez ezaguturiko produktuak propagan- daren bidez saldu dizkigute oilo salda kontzentratu edo detergente bat bezala. Munduan zehar —mendebaldean esatea hobe— dagoen publiko standardizatuari Coca-Cola edo Colgate bezala filmeak saltzen zaizkio. Baina ez edonola. Aurretik merkatua estudiatu egin behar da, eta meto- dologia amerikarra horretan oso trebea da.

Nixon Estatu Batuetako presidente ohiak irabazi zituen azken hau- teskundeetan metodologia berdina erabili zuen: estatuetan eta hirietan zehar jiraldi bat egiterakoan, aurretik inkestazaile batzu bidaltzen ziren. Hauek, estatuetan eta hirietan zer entzun nahi zenetaz konturatu- rik, Nixon pasatzen zioten informazioa, eta honek publikoari entzun nahi zuena esaten zion. Filmeekin gauza berdina. Amerikarrek bere dolarrak filme batetan inbertitzerakoan, publikoaren arrakasta seguru- tuta dute, filmeak jendearen nahikundeen arauera eginik baitaude.



## EUOPARREN ERANTZUNA: EROTISMOA ETA PORNOGRAFIA FILMIKOAK


Europako produktoreek, merkatu ttikiagotara lotuta, eta horrela-ko konpetidoreak ezin gaindituz, merkatuaren atal bat seguratu nahi zuten. Hamarrurte honen hasierarte Europan zehar hedatzen zen zentsura gainditzearen, sugerentziak, situazio bikoitzak, egoera normalizatu batetan egiten ziren hoben ttikiak eta tranpatxoak agertzen ziren: destapearen hastapena zen Europan (Espainia orduan ez baitzen Europa). Soilik zinegile ausartenak zibizki horik gainditzen saiatzen ziren, eta direktore on gehienek kausa honetaz problemak eduki dituzte.

Baina hala ere Europako zinea hondora zihoan, eta merkatuaren bortxaz, zentsura moteldu zen. Horrela, estatuaren laguntzaz, Europa-ko errepresioari erantzuteko adinako filmeak egiten hasi ziren. Bide honetatik abiatzen dira "Emmanuelle" eta bere ostean etorriko zaizkigutkeen beste asko ("Histoire d'O") edo jadanik etorriak ("Emmanuelle negra", "Madame Claude").

Une honetan ezin daitezke publikoaren errepresio ondorengo desio guztiak ase eta bete, ez teknikoki posible ez delako, baizik eta hori egiteak beste filme askori publikoa kentzea litzatekeelako. Honela, drogekin gertatzen den bezala, filme hauk hazia baizik ez dira. Gogorgoarekin eta biolentziarekin gauza berdina gertatu zen: behar batzu betetzeko eginak, merkaturia ahitua geratu denean, frenatu egin da. Soilik publiko aseezin minoritari batentzat infrafilme batzu egiten dira.

Orain Emmanuelle asko etorriko dira (ordua izan da), baina Emmanuellez okituak garenean, beste gauza batzu etorriko dira, hala nola filme politikoak. Eta denek, publikoaren satisfapena lortzeko egin diren filme guztiek, zine bezala, ez dute ezer onik. Arte gisa, folietin, irratiko edo Marcial Lafuente Estefaniaren edo Corin Telladoren nobelen parekoak dira. Zoaztenok... koitaduok!

I. Zuazo.



## KARRERA ETA NI

Norberaren karrerarekiko maitasunaren suaz, inork poesiarik idatzi badu, arren, bidal diezadala, bitxirik arraroena bezala gordeko baitut. Bai eta aztertu ere, maitasun horren oinharriak ezagut ditza-dan.

Izan ere, hori izango baita nire kasuaren esplika-zioa, oinharri falta. Eta oinharri gabeko maita-sunik, ba, horrek, porrot.

Hain zuzen, bost urte pasa dira elkar ezagutu genuela, karrerak eta nik, nik eta karrerak. Horre-lako kasu guztietan gertatzen denez, ni ez nintzen ausartzen harreman "serios" batzu eramatera. Bel-dur nintzen, erantzunkizunaren beldur.

Baina beti bezala, batek hasten duela, besteak ere bai, eta ni neu, ez naiz bakarrik geldituko. Gi-zarteak bultzatzen nau ezkongai hauetara eta neu, erre-karen urlasterraren barruan murgiltzen naiz, beste hainbat urtanta pilorekin batera.

Lehenengo egunak, ai, haik egunak! Dena zen berria, hura mundu berri oso bat zen niretzat. Bera-rentzat ni, aldiz, ez hain gauza berria. Lehendik ere oso aritua baitzen ikasleon sexuarekin.

Egunero ikusten genuen elkar.

Ordu asko pasatzen genuen elkarrekin.

Poliki poliki, elkar ezagutzen joan ginen.

Bikote guztiek bezala, elkar ezagutzean, gure "probak" pasa behar izan genituen. Une batzutan, denborak ba du zerikusirik honetan, gehiago eska-tzen genion elkarri. Gure elkarrekiko maitasunaren frogak ziren haik. Sua oraindik gaztea zen eta eder-ki berotzen genituen.

Dena dela, lehenengo haserraldiak orduan izan genituen eta geroztik haren arrastorik beti eraman dut neurekin.

Beste urtebete ere etorri zitzaigun gainera. Baina denbora joan arau, elkarrekin gutiago egoten ginen, bitartean beste amodio berri batzu ezagu-tzen nituelarik.

Filmeetan ikusi izan dugun bezala askorekiko harremanek bat hondatu egiten dute. Alde batetik, etengabeko gezurraldia nire karrerarekiko eta bes-talde, ba hori,... ezin denetara heldu.

Honen ondorioz probak gero eta jasangaitza-goak egiten zitzaizkidan. Eta horrek nigan uzten zuen arrastoa gero eta handiagoa.

Zenbat eta denbora gehiago iraun gure harre-mana gero eta gaizkiago eramaten genuen. Norbai-tek esango du: konponketa erraza du horrek, utzi eta bakean. Baina bai, bai. Hori pentsatzen duzu beti harremana hasten duzunean baina gauzak ez dira hain erraz gertatzen. Zure gurasoek ezagutzen dutela, etxean ondo jausi eta ilusioak sortuta, eta ba dakizu: lotuegia zaudela. Nola eta bat-batean horrelako harreman bat apurtu!

Eta noski ezin esplikatatu heure bizitza dela le-hendabizikoz, gizarteak honetarako edo hartarako aukera eskaini badik, hik zer kulpua duala, hik heuk desarroilatu behar duala, eta abar, eta abar, eta abar. Moral hestu baten barruan hezi eta horren fruitu zuzenak direnei nola hitz egin sexuen arteko harremanen askapenaz. Ez dute ulertzen; alferrik ile luzedun komunista batzuren zorakeriak baino ez dira horik!

Eta horrela sistemak berez sortzen dituen kontraesanetatik kanpo, higan ere kontraesanak sortzen ditu. Etengabeko kontraesanak. Eta hauei ere aurpegi eman behar.

Sistema sozio-politikoarekin bezala heure ba-rruaren alternatiba kojunkturalak egiten dituk, eta estrategia bat markatu ere. Kontua da kontraesana dialektikoki gainditzea. Azkenik eta dialektikaren izenean, bost urte dela sortutako harremana, une batzutan bere sakoneraino eramana izan dena, eta gaur itxura bat baino ez dena pikutara bidaltzen duk beste harreman berri batzuri ateak irekiz. Ha, ordea, kontraesan nagusia gainditu ezin baduk erretze etengabe batetan sartzen haiz, non bertatik fisikoki eta psikologikoki osoki ateratzeko posibili-tateak ere gutitu egiten baitira.

Dena dela, heure barruan ondo bilatuz gero beti izango duk irribarre gaiztotxo bat biziari burla pixkat egiteko.

MENDI ZABAL BAT



# kirolaren pertsonaiak:



## 7. INFORMABIDEAK

Gaur eguneko bizitzan informabideek duten eragina guztiz garrantzizkoa da. Leku guztietara heltzen da eragin hori; eta askok harma gisa erabiltzen dute informazioa (deformatua edo ezosoa), beren kontrolea indartzeko. Politika, kultura, herri mugimendua,... eta kirola ere, informagai diren aldetik, informabideak gidatzen, maneiatzten eta erabiltzen dituztenen indarraren menpean geratzen dira. Horregatik da hain garrantzizkoa informabideen kontrole herritarra.

Kirolari dagokionez, ondoko informabide moetak aztertuko ditugu: Telebista, irratia, egunkariak eta aldizkari esportiboak.

### INFORMABIDEEN ABANTAILAK ETA BEREZITASUNAK

Informabide moeta bakoitzak bere berezitasunak ditu. Irratiak eta telebistak, adibidez, momentuan ematen dute informazioa. Gertatuahala, begiraleak entzun edo entzun eta ikusi egiten du Kirola, eta berehala daki lehiaketa edo partiduaren erresultatua. Gauza biziak dira, beraz, informamodu horik: arinak, hunkigarriak —behatzaileek kirol zelai inguruko publikoaren tentsio berbera edo are handiagoa jasaten dute—; ikus- edo entzungarriak, hitz batez. Ia-ia kirola zuzenki ikusten egotea bezalakoak.

Lokutoreek berek ere biziagotu egiten ohi dute giroa, irratia kasuan. Irudi grafikorik ez dagoenez, hitzez irudikatu behar izaten dute zelaiko egoera. Eta azaltzen ari direna partidu bat bada —futbolekoetan praktika handiena ohi dute—, izugarrizko tentsio-giroa zabaltzen dute entzuleen artean. Ez al duzue inoiz horrelakorik entzun? Teknika aldetik baino ez bada ere, merezi du. Benetan. Bai hitz egiteko modua! Parentesi artean baina denok entzuteko moduan, galdera bat egingen dute: Noizko horrelako erretransmisioak euskara hutsean? Bai! Ba dakit zenbait pilota-partidu, haizkol apostu eta antzekoak bilingueki egiten direla. Baina futbola? Edo beste horrelakoren bat: Ziklismoa, ziklo-cross-a (munduko azken txapelketa Euskal Herrian egin da), boxeo,...

Telebistako lokutoreek ez dute hainbeste berbarik egin behar, han irudia ere ikusten baita. Eta, nolabait, iruzkin kritikoagoak egiteko aukera ere ba dute; lasaiago dabilta behintzat.

Egunkariak beste posibilitate batzu eskaintzen dituzte. Batetik, testu idatziaren indarra dute, eta beraz, han ezin daiteke utz inprobisapen merkerik egiten, idatzia inprimaturik geratzen baita. Dena den, egunkaria eguneko edozein ordutan irakur daiteke, eta hortik datorkio bere garrantzia. Honekin batera, estatistikak, erresultatuak, klasifikapenak eta beste gauza asko idatzirik geratzen dira, kontsultarako prest. Bestalde, egunkarien zeregina ez da kirol ondokoa soilik. Lehiaketa aurretik giroa



prestatzen dute, gertatzeko denari buruz hainbeste xehetasun azalduz, kirolarien bitzitza eta datu teknikoak emanez, pronostikoak aurreratuz, elkarriketak eginez,... Hitz batez: Propaganda izugarria eginez. Denok ezagutzen ditugu, sarri-sarri-argi-artikuluaren izenburuetan idazten diren "Mendeko konbatea", "Urteko partidua", "Konkurrentzia erregionala",... eta antzeko esaldi kitzikagarriak.

# KIROLAK

REVISTA DEPORTIVA DE EUSKADI  
Núm. 78 - DICIEMBRE 1977 - 75 Páginas



ARGOTE: "NO ME VA SER INTERIOR"

IRAKOLAK TXETUA UTZI ZAN URTAIN IV'NA

PERFIL DE LAJOS Y GOROSTIZA



EL SEXTO CAMPUCOANO DEL ATHLETIC

KIROLAK: 1'19 o/o euskaraz

Aldizkari esportiboek, egia esan, ez dute egunkariak baino asko gehiagorik eskaintzen. Hori bai! Haik baino askoz ere espezialduago daude eta kirol modu konkretuak lantzen dituzte: skia, ziklismoa, motorea (autoa eta motorrak), futbola, tenisa,... Denetarik dakarten kirol aldizkari esportiboak ere ba dira. Aldizkari esportiboetan elkarriketa asko ohi dago eta hauekin batera iruzkin kritikoak. Eta argazkiak. Hauxek dira, beharbada, duten berezitasunik handiena. Argazki onak, koloretan gainera. Eta posterrak, poster handiak, kirolarien kultu pribatua lantzeko egokiak. Edo bestela, begira ezazue, tabernetan horrelako zenbat eta zenbat poster jarzen diren.

Edozein modutan, zoritxarrez, informabide askotan kritika orduan partzialkeria ageri da. Adibidez, idazleek erabiltzen duten hizkeran, ikusgarria da, nola lokutoreek, idazleek eta iruzkingileek bi muturretako superlatiboak eurrez erabiltzen dituzten.

KIROLAREN PROMOZIOA ETA  
INFORMABIDEAK

Kirola moeta konkretu bat ez da berez promozionatzen eta indartzen. Horretarako giro egokia behar du: Eraikuntza egokiak (zelaiak, polikiroldegiak, pistak,...) prestatu behar dira batetik; bestetik kirola hori ttikitatik irakatsi behar da; eta bestetik, propaganda egin behar da.

Propaganda hau era askotara egin daiteke, baina informabideen bidez kanaltzen da nagusiki. Hori dela eta, informabideetako arduradunek hartzen dituzten jokabideek eta kirola moeta bakoitzari ematen dioten garrantziak, alde batetarantz edo bestetarantz bultzatzen dezakete informazioa. Kasu batez, gaur eguneko informazioa futboleko zentratu dago eta hemen ere arraultzearen eta oiloaren arazoa berragertzen da: Ez dakigu, futbola lehen kirola delako hartaz informazio asko ematen den ala, alderantziz, hartaz informazio asko ematen delako futbola lehen kirola den. Hori kontutan harturik, interesgarria da, besterik gabe, zenbait aldizkaritan ematen hasi den dibertsifikazioa, pilotari, eskubaloari, saskibaloari edo besteri leku gehiago emanez eta futbolari kenduz.

Hala ere, zenbait kirolaren promozioak, usain txarra (hatsa diogu Bizkaian) ateratzen du, promozio horren inguruko helburuak arakutzen hasiz gero. Zergatik promozionatu zen, kasu, tenisa, duela hamar bat urte Espainian? Espainolentzat ona zelako ala mundu mailako jokalaria on pare bat (Santana eta Gimeno) zegoelako? Espainian kirolari on gutti zegoen, eta zeudentxoak ongi probetxatu behar ziren. Eta, noski, telebista tenisa ematen zuen gora eta behera, goiz eta arrats. Edo eta zertara zetorren saskibaloari arloan, arrotzez osoturiko Real Madrid famatuaren ia partidu guztiak telebistatzea? Estatuarentzat prestigio-iturri zelako ez ote zen? Eta honetaz, konturatu gabe, politikaren arloan sartzen ari gara.

## INFORMABIDEAK ETA POLITIKA

Kirola, informabideak eta politika. Bai lotura gogorra hiruren artean!. Hirugarrena agintari delarik, noski. Nazional-triunfalismoa eta nazio (patria) kontzeptua izkutuki baina gogorki lantzen dira. Adibide bat: Lerro hau idazten ari naizen bitartean, Espainia Italiaren aurka jokatzeko ari da. Zenbat euskaldun ez ote dagoen telebista aurrean, talde "nazionalaren" aldeko tentsioa pairatzen eta amodioa handiagotzen! Jokalari euskaldunak ere harro eta pozik omen daude talde "nazional" horretan. Eta gero autonomistak (?) garelako diogu. Beste nonbait idatzia dudanez, oso arriskugarria da, talde "nazional" horren bidez egiten den Espainiarekiko propaganda izkutua, subkontziente mailakoa baita. Gainera, guk ere, nazio bat izanik, horrelako talde bat edukitzeko eskubidea dugu. Baina ez! Hori ez digute inola ere emanen. Gehiago oraindik: Ideia hau publikoki adieraztea, ia birao

egitea dateke, patria sailduaren batasun sakratua arriskutan jarriko bailuke. Ordea, Britainia Haundiko nazioek —eta han Erregina dute— zeinek bere talde nazionala du...

Eta euskarari dagokionez, ez dizuet ezer esanen. Edo bai. Har ezazue euskal izenburuko edozein egunkari edo aldizkari elebidun (?); kirol saillean abia zaitezte. Hori harrigarria! Ez duzue 30 o/o-ik, ez 20 o/o-ik ez 10 o/o-ik aurkituko (euskararen proportzioez ari naiz). Eta kalitateaz aztertzen baduzue... Jainkoak anpara gaitzala! Behar bada astoprobak, idiprobak, harrijasoketak edo horrelako zerbait. Horretaz gainera, laburpentxoren bat (euskaraz). Zer esanik ez, nik ez dut ezer, kirola horietan ere euskara erabiltzearen aurka; baina horietan bakarrik euskara erabiltzea, folklorismo-

## KIROLA-INFORMABIDEEN SINBIOSIA

Gaur egun, kirola ezin daiteke bizi informabiderik gabe eta informabideak ezin daitezke bizi kirolarik gabe. Biologikoki esateko, sinbiosian daude. Biak elkarretik abantailak hartuz. Biak pozik. Ezkontza honetaz ez dago dibortzio beldurrik!

Kirolak informabideek egiten dioten propagandaren premia du. Ba al dakizue, dohaineko propaganda hori zein handia den? Pentsa ezazue pixka batetan, telebistako iragarki llabur batek zenbat balio duen. Telebistak, ordea, ordaindu egin behar izaten du kirola ateratzeko. Honela propaganda egin eta oraindik ordaindu. Kirola pozik. Bestalde, informabideek giroa prestatzen dute, eta hori ere interesatzen zaio kirolari.

ANO 1 - N.º 201  
Administración y Talleres:  
C/ta. Biltza-Gabizano, 6/n.  
Edificio Arzak, Sabata-Bilbao  
Teléfono 4 15 52 50  
Telex: 23378  
Publicación:  
Dime, 25-24 dcha. -Bilbao  
Teléfono 444 21 08-58

# DEIA

PRECIO: 30 PESETAS  
Director: Ignacio María Albas  
Bilbao: C/ta. de Biltza o Gabizano, 6/n.  
Teléfono 415 52 50  
San Sebastián: C/ta. 1.ª 1.ª  
Teléfono 42340-42377-42378 y 42384  
Pamplona: C/ta. 1.ª 1.ª  
Teléfono 22 173 1 04-75 04  
Vitoria: Plaza de la Fuente, 2.ª  
Teléfono 22 81 58

1378 URTARRILAK 29, IGANDEA



El antebio Klara Holdegg (suiza) baila a Schemsk, en el último episodio de Kitzbühel (Austria).

(UPI-Ciba)

## kiroldegin

### Aurkibidea

Realak ez sum amara jakartzen aurkako jokatu aritzen. Ez zuten, bala ofiz. gaitzek neruz. Berochak erak erak oituz atabazuko neruz partidu amasteko 15 segundu laho jirka, (2. orrialdea).

Corrikari Menduarrietan. Hantza leibituzko gaitzera de negatiba liga bostez. Barazida gaitza dion eta igotzeki ere ukara pelatzo de orate, naja partidu eguz baituz gaitze. 157 menduzko sum (Ordeko gaitzera) (2. orrialdea).

Athletiek, aldi, irabazteko beldu du. San Mamenak kaitzera gaitze partidu atabazuko.

Zuzend. profesionalen, eta Labon informabideak, emendak (tegi).



LA CARCEL DE MALAGA HA QUEDADO PRÁCTICAMENTE DES-TRUIDA al ser incendiada por los Putscheros, que se apoderaron durante la noche del viernes. La policía pudo ser retirada a las once de la mañana, después de que la Policía alcanzara mantener el control de la zona. Se han hallado de cinco a veinte muertos. El caso precisa ser investigado por la prensa de alto de gravedad. (15 de febrero de 1936)

## Euskal izena nahi dute. Eta euskal izanik?

rako bidea da —folklorea ere, berez, gauza ederra da—, eta ez zaio euskarari bizitza modernorako egokitzen uzten. Eta horren aurka, bai; ba nago.

Demagun KIROLAK aldizkaria. Beronen izenburuak dioenez, "Revista Deportiva de Euskadi" da. Barruan kirolari euskaldunekiko elkarrizketak, txostenak,... Denetara 1'19 o/o euskaraz. Gainera artikulua hori harrijasotzaileei buruzkoa da, eta euskal textuarekin batera, erdal itzulpena ere ematen da. Biba euskara! Baina zertaz ari naiz? Ez ote dakit, ba, euskara eta politika ez direla nahastu behar????...

Informabideek ere abantaila franko dituzte. Batetik, materiale ugaria dute, erraz prestatzeko gainera. Aldizkari-egunkariek erosle gehiago dituzte —batzuk ia-ia kirolei buruzko horriak baino ez baitituzte irakurtzen— eta entpresen propaganda gehiago datorkie. Eta kirol egituren agintariaren aldetik erraztasunak ohi dira informatzaileentzat.

Ikusten denez, ba, sinbiosi perfektua edo, bestela esateko, komenientziatzko ezkontza. Ezkontziak ados egonik, hor konpon Mari Anton.

J. R. Bilbao

## IRAKURLEAREN SAILA

Irakurle izengabe honen gutunari begira, Anaitasunak pentsatu du irakurlearen ideia, asmo, iruzkin, komentarioen sail baten irekitzea. Honekin inputagarri zaigukeen hertsikeria (artikuluetan eta gaietan) nolabait baztertzeko.

Zer hau erregutuko genizuke: Komentarioak ahal den laburkienik egin itzazue, arren, besteenei ere irteera emateko. Baldin eta ahal ez bada edo luzeak izanez gero, zaudete lasai, berdin-berdinzki aterako ditugu. Bestaldetik, zuek idazten duzuen errespetatuko dugu gutunen edukiari begira. Gure esku geratzen dira gramatik arauai (morfologia, ortografia, etab.) begira egin daitezkeen zuzenketak, denon ulergarri izan daitezzen. Lehenik eta behin horrialde bete bat eskaintzen dizuegu.

Adio; idatz dezazuen artio.

Anaitasuna



## HIZKA-MIZKA

PNVko zein PSOEko masokista bat behar da KAS-eko bulego batetan dauzkaten zenbait punta eta puntu elkar jotzeko. Ref. (ixila)

Neskak palestino laranjadun bat behar du. Esneaz baino likits pozointsuaz apaindurik balego askoz hobe. Dei Emakumeen topaketei.

Musean ondo jokatzen duen euskaldun jator, iraultzaile eta independentista bat behar dugu. PCkoak abstenitu. Tutean bakarrik dakite eta.

Mezatarra joatean preautonomiarako estatutu bat galdu da atzo Bilboko Cortes kalean. Presebatibotzat ez hartzeko erregutuko genuke. Bale.

Iraultzaile frogatu batek iraultza jator bat behar du. Proposapenak bi espazioz egin beharko dira.



# ZABALDURIKO ERRAKUNTZA ETA ERDARAKADA ZENBAIT

## 1. BAT hitzaren erabilkuntza izenorde pertsonal mugagabe bezala.

Euskaraz BAT berbaren funtzioa zein den argi eta garbi dago, numeral huts bat, mugaturik zein mugagabe erabil eta deklina daitekeena.

Gaztelaniaz, berriz, gauza ez da hala. Hizkuntza horretan numeral eta mugitz mugagabe singularra hitz berberaz adierazten da: "uno/una" hitzaz. Hitz horrek, baina, ba dauka beste erabilkuntza bat oso berezia, h.d., izenorde pertsonal mugagabearena. Horrela, bada, honelako esaldiak askotan entzun daitezke Espainiako erdaraz:

- "El otro día uno me dijo..."

edo

- "Uno/una escribió que..."

edo eta

- "...y qué podía contestar uno/una? Nada."

Euskaraz hirugarren adibidea honela eman liteke:

- "...eta zer erantzun lezake norberak? Ezer ere ez."

Sekula egin ez litekeena zera da ordea, "uno/una" hori, BAT hitzaren bidez itzultzea, euskaraz BAT hitzak erabilkuntza hori ez daukalako, eta gaztelaniaz jakiten delako ez bada, honelako esaldi bat guztiz ulertezina baita:

- "...eta zer erantzun lezake batek? Ezer ere ez."

Eta ez da pentsatu behar erdaraz jakiteak beti laguntzen duenik; nik neuk gaztelaniaz euskaraz bezain ondo ba dakit, agian hobeto, hala ere "Adamen poema amaigabea" liburuko hitzaurre edo hitzatzeren bat irakurtzean, honez gero ez dut ondo gomutatzen, horrelako esaldi bat irakurri nuelarik hamar minutu sartu nuen gora eta behera kontua ulertu guraz, gaztelaniaz bakarrik uler zitekeela konturatu nintzen arte.

## 2. Gaztelaniazko "quedar" eta euskarazko "egoteko izan"

Ezaguna da gaztelaniazko esaera hau:

- "He quedado con Maite a las siete de la tarde."

Eta ezaguna da ere haren esangura, hots, gaur arratsaldean zazpitan Maiterekin egonen naizela edo egoteko naizela. Euskaraz hori, zaharren euskarari gutienez, honela esaten da:

- "Arratsaldeko zazpitan Maiterekin egoteko naiz".

Eta ez orain nahi baino gehiagotan entzuten den astakeria hori:

- "Arratsaldeko zazpitan Maiterekin geratu naiz".

Euskaraz esaldi hori, gaztelaniaz ez dakien batentzat guztiz ulertezina baita. Eta ez dut uste esplikatu beharra dagoenik, "geratu naiz" eta "egoteko dagoen zerbait" ezin elkar daitezkeela argi baitago.

Behin batetan nire aurrean hau esan zuen Elgoibarreko mutil batek euskaraz ari ginela:

- "Bai, gaur arratsaldean emaztegaiarekin geratu naiz" (goizeko hamaikak ziren).

Baina derrepentean lagun erdaldun bat paratu zitzaigun ondoan eta Elgoibarrekoak esan zion:

- "Pues sí, hoy a la tarde soy de estar con la novia."

Ezin erdara barregarriagoaz, Txorierriko euskaldunak Bilboko kaleetatik entzun dituenak segurasko behin baino gehiagotan entzun dukeen erdarazko esaldi traketsa.

## 3. "Lehengo 'egunean" eta gaztelaniazko "el otro día"

"El otro día" euskaraz, beste modu batzuren artean, honela esan daiteke:

- "Lehengo egunean"

Euskaraz "beste bat" multzo batetan marka bat egin nahi denean erabiltzen da:

- "Egun horretan ez nintzen heldu, ez eta aurrekoan ere, bestean baizik."

Edo: - "Hau ez, bestea."

Bestalde gaztelaniazko "otro/otra" aipaturako arrazoiagatik euskaraz "beste bat" bezala ematen da; hortik, erdaraz sorturiko analogiagatik, "el otro día" esateko "beste egunean" bezala itzultzeko dagoen joera, txarto dagoena, zeren esaten dena erdaraz esaten dena bera ez baita, formalki bakarrik egindako kopia bat baizik, eta gainera elkar ulertzeko problemak sor litzakeena gure hizkuntzan.

4. Euskaraz izenlagunak edo adjektiboak izenaren atzean kokatzen dira BETI.

Aspaldiko denboran honelako astakeriak ikustea euskal prentsa eta literaturan oso zera da:

- "Juridiko arazoak", "politiko problemak"... eta horrelakoak.

Alde batetik euskaraz erregela argi dago, izenlagunak izenaren atzean kokatzen dira, "handi etxea" bezalako ganoregabekeriarik euskara ez baitira.

Bestalde, baina, joera horren iturria honetan funtsatuko nuke: hitz teknikoekin konposatu berri

asko egiten eta sortzen ari dela, baina, eta polemikan sartu gabe, konposatuen elementu biak, batzuetan batera eta gehienetan aparte idazten dira:

- "politik problemak" edo "musik lanak" eta abar.

Forma horik nahiko arrotz gertatzen dira berlarrian eta orduan berez substantibo bat dena "politikarazoa" edo "politik-arazoa" edo "politik arazoa" izenlagun izen bezala interpretatua izan da.

5. Hiztegiak erabiltzea beti izaten da interesgarri eta osasuntsu, eta euskaraz ari garela oso kritiko izatea eta euskaraz pentsatzea ez da gauza txarra, "exigir" bezalako gauza bat "gogor eskatu" edo horrelako zer batez itzul daitekeelako eta ez, nahi eta nahi ez, "exigitu", edo are txarrago "exijitu" bezalako forma batez, gauza bat kontutan hartu behar baita, hizkuntzak ez direla homogenoak, hots, ez dira paraleloak, eta beraz unitate lexikalak ez dira berberak hizkuntza guztietan. Itzuli behar dugu, ez kopiatu. Eta ez beza inork, mesedez, atzekoa aurrereotzat har, hau garbizalekeriarik ez baita, hizkuntzak dauzkan ahalbideak erabiltzearen alde egotea baizik.

Andolin Eguzkitza

## XIXTE-MIXTEKA

- Eta zer, Don José Mari, pozik? (baina erdaraz)
- Bai eta... bla, bla, bla, bla. (Honelaxe hogei minutuz).
- Orduan kardinala izango al zara, Don José Mari? (Baina erdaraz)
- Ez!... bla...bla...bla. (baina erdaraz)  
... Y la estructuración receptivo-creativa en la que los diocesanos etab. etab...
- Orain euskaraz, e! Don Jose Mari?
- (sic) Bai, Jaungoikoaren laguntzagaz... ...mmm aztu dot.  
(Bilboko Herri Irratian entzunda)

Art. 423-*raya* 54 párrafo ad casualitatem, in memorandum mujika mea. Se enseñará latín clásico, con las posibilidades perentóricas que hubiera lugar en toda la zona católica. Los marxistas épico-ortodoxos pueden, si así lo requieren, acceder a tan alta buruhauste tras quedar supínamente demostrados sus amores a Catilina. Será eximido de tan reaccionaria obligación "gure lehendakaria" (Lehen aharria), por haber estado durante larguísimos lustros combatiendo en primera fila contra contra el pèrfido monstruo, el cual no entendía latín.

HAsera HAstekotan Hazi asko HAuzian AHaztu zitzaigun. HAize pixkat HArtzeko HAsi HAsape-nak HAZten eta HAUzia Asetuko da HAla Hola. Oharra: Existe una traducción "ad calendas graecas" en las oficinas de kilikili.

Irakaslea euskarazko ikasleekin hizketan ari da. Euskararen bikaintasunak aipatzen ditu hark. Arlo guztietarako gure dotoretasuna azaldurik gertatu da. Matxismoari buruz hitz egiten du, gaztelaniak eta euskarak artean dituzten ezberdintasunak ongi eta intentzionalki azpimarkatuz. Horrela dio: Padres baina gurasoak, los niños baina umeak eta haurrak. Los abuelos baina aitona-amonak. Handik guttira animaliez hitz egiten dute. Horien artean, pornografian erori gabe, zeintzu eta nortzu diren arrak eta emeak esplikatzeko du gure irakasleak. Gero kumea hitzaren zentzua garbi zehazten du. Kume guztiak animalia ez-arrazoidunarenak dira. Hola usakumea, katakumea, zakurkumea eta abar. Fernando baina, kezkatu dago eta honela galdetzen dio. Adizu, arkumeak animalia arrazoidunak al dira?... Ez, Fernando; nola izango dira ba? Adarrak ere ba dituzte gero!. A, bai e! orduan emakumeak ere ez dira arrazoidunak!

# HAREN / BERE / BERAREN

Artikulu honen izenburuan ageri diren hiru izenordeak oso nahasturik ikusten dira idazle askoren lanetan. Hori dela eta, horien erabileraren azalpena egitea pentsatu dut, polikiro geure okerrak zuzenduz joateko.

Hasteko, gramatika arloko ohar bat eginen dut: Hiru erakusle hauk izenordetzat hartzen ditut, zeren eta euskaraz deklinabidea egonik, hura izenordearen deklinabideko kasuak baitira. Dena den, ni ez naiz gramatikari, eta honetaz berauk mintzatuko dira. Guztiok dugu euskaraz eta euskal ikuspegiz eginiko gramatiken premia. Ibon Sarasola horretan ari dela uste dut. Ea, ba, laster horrelakorik ikusteko zoria dugun!

Ohar gramatikala alde batetara utziz, noan harira! Hemen azalduko dudana, ANAITASUNAKo erredakzioan I. Berriatuak markaturiko bidetik doa. Egia esan, ez dut inon aurkitu, arazo hau bere multzotasun eta osotasunean azalduz, nahiz eta zatika leku askotan aurkitzen den. G. Aresti izan zen, haren/berere formen arteko desberdintasuna argi eta garbi azaldu zuen lehena. Gero, azalpen hori zenbait liburu interesgarritan ere agertu da: Txillardegiren (edo Larresororen) "Sustrai Bila" (orain "Oinharri Bila") delakoan eta Villasanteren "La declinación del vasco literario común" delakoan, guttienez. Beraren formaren azalpena, Altuberen "Erderismos" liburuan ageri da. Villasantek ere zerbait dio honetaz, baina ez dago osorik. Hemen eginen duguna, ba, lan horien bilketa, sintesia eta azalpen laburra izanen da, horri ANAITASUNAKo erredakzio esperientzia gehituz.

## HAREN ETA BERE FORMEN ERABILERA

Haren eta bere izenorde arrunta eta intentsiboak dira errespektiboki (genitibo posesibo kasuan, noski). Villasantek dioenez, hiru izenorde arrunt daude (honen, horren eta haren) eta intentsibo bakarra (bere).

Bi izenorde hauen artean erabileran dagoen desberdintasuna, hauxe da: Izenordea agertzen deneko esaldi berean, posesiboari dagokion pertsonak aditzean parte hartzen badu, posesiboa intentsibo eran jartzen da. Bestela izenorde arrunta erabiltzen da (edo errepikatiboa, gero ikusiko dugunez). Villasanteren liburuan posibilitate guztiak ageri dira (ikus 86. horrialdea). Nik adibide batzu ipiniko ditut:

- Mikel bere emaztearekin dago (Mikel, Mikelen emaztea).
- Mirenek bere ideiak ditu (Mirenek, Mirenen ideiak).
- Anderri bere etxea erre zaio (Anderri, Anderren etxea).
- Maritxuk bere liburua eman digu (Maritxuk, Maritxuren liburua).

Izenorde arrunt eta intentsiboaren arteko arazo hau ez dagokio soilik singularreko hirugarren pertsonari. Beste pertsonen kasuan ere berdin gertatzen da ondoko bikoteen artean: Ene (nire)/neure, hire/heure, gure/geure, zure/zeure, zuen/zeuen, haien/beren.

## BER- AURRIZKI ERREPIKATIBOA IZENORDEEKIN

Dakigunez, ber- (bir-) aurrizkia ideia edo egin-tza baten errepikapena adierazteko erabiltzen da (berresan, berregin, berrogei, berrehun, birjarri, birpiztu). Aurrizki hau hirugarren pertsonako izenordeekin ere erabiltzen da, deklinabideko kasu guztietan, singularrean eta pluralean eta izenordeen hiru mailetan. Koadroan adierazten den bezala, hain zuzen ere. Koadroan kasu batzu ipini ditugu soilik. Hauetan finkatuz, erraz idatz daitezke besteak. Koadroan ikusten denez, beraren forma hirugarren mailako izenordearen forma errepikatze-ko posesiboa da.

	hau	hori	hura
NOR	berau	berori	bera
NORK	beronek	berorrek	berak
NORI	beroni	berorri	berari
NOREN	beronen	berorren	beraren

	hauk	ho(r)ik	haik
	berauk	bero(r)ik	beraik
	berauek	bero(r)iek	beraiek
	berauei	bero(r)iei	beraiei
	berauien	bero(r)ien	beraiei

Baina noiz erabiltzen da beraren (edo beronen edo berorren) forma? Hara! Demagun bi esaldi ditugula; bi esaldi horiek elkarretik hurbil daude. Demagun bi esaldi horietako lehenean pertsona bat aipatu dela; bigarrenean pertsona hori izenorde gisa agertzen bada, izenorde horrek bere forma errepikatiboa har dezake (guztiz beharrezkoa ez bada ere). Ikus zenbait adibide:

- Hori nire laguna da; baina zuk ez duzu nahi ni berorrekin joan nadin.
- Kritika egitean, zorrotza baino areago bihoz-kabea ohi da; eta gauzak beraren gustura ez badoaz, ez du barkatzen hankasartzerik tti-kiena ere.
- Pasolinik berak esaten zuenez,...

- Zarataka etorri da. Nor da, ba, bera?
- Euskara eta beronen garrantzia azaldu zuen.

Forma errepikatibo hauetaz, Villasante labur geratzen da bere liburuan. Zabalago —ez ordenatua-go, ordea— azaltzen du problema hau Altubek.

Esaldi batzutan forma errepikatiboak izenorde arruntaren ondoan agertzen dira, indar handiago adierazteko edo. Zer esanik ez, bikote hauetan mailen berdintasuna gorde behar da; honela prezeski:

hau berau	hauk berauk
hori berori	horik berorik
hura bera	haik beraik

Asimetriatan erori gabe ezin idatz daiteke hori bera bezalako bikoterik, bigarren eta hirugarren hurbiltasun mailak nahastuz. Ikus, adibidez, Erderismos liburutiko zenbait adibide (ortografia neuk aldatua da):

- Ba, hau berau bekatorea baitan ere gertatzen da.
- Eta haxe berau da, gaur jazo zaidana.
- Haren beraren etxea ere zaharra da.

Bukatzeke, interesgarri dateke beraren formaren erabilkerari buruzko ohar bat egitea. Gaur egun gero eta normalagoa da eskelak euskaraz jartzea. Hauetan, hildakoaren izenaren ondotik, beraren senideen izenak jartzen dira. Gehienetan honela hasten da zerrenda hori: Haren emaztea; haren seme-alabak;... Hau ongi dago, zer esanik ez, eta nik neuk ere horrela proposatu nuen aspaldi ANAITASUNAREN horrialdeetatik. Baina, ene ustez, egokiago da forma errepikatiboa erabiltzea, pertsona hori —hila— aipatua izan baita. Beraz nik neuk honela idatziko nuke: Beraren emaztea; beraren seme-alabak;...

## AZKEN IRUZKINA

Hiru forma hauen arautzeak, zehaztasuna eman diezaioke euskara batuari. Bestetik, ez da gauza artifiziala, gauza bizia baizik. Batetik ekialdeko euskalkietan eta bestetik Bizkaian bizirik dago horien arteko banaketa Bizkaian, prezeski, fenomeno errepikatiboak garrantzi handia du eta haren/bere/beraren ( beran) formak nahiko ongi bereizten dira. Horregatik, ba, ene ustez oso interesgarri litzateke erabilera hau jeneraltzea eta arautzea, jadanik idazle batzuk egiten duten eran. Baina, beti bezala, honetaz idazleek dute hitza.

J. R. Etxebarria

# JAKIN

EUSKAL KULTUR  
ALDIZKARIA

Hiruhilabetez behin ateratzen da

Monografiak  
Dossierrak  
Azterketak  
Kritikak  
Gaurko gaiak

Oraingo zenbakiaren gai nagusia:

EKOLOGIA EUSKAL HERRIAN

Beste gai zenbait:  
Euskal Ekonomia  
1977.eko euskal eta erdal liburuak  
Kanta berria eta poesia

Oraingo zenbakiaren lankideak:


Alkiza, Jose  
Arantzadi Elkartea  
Areso, Paulo  
Etxaniz, Nemesio  
Etxebarria, Jose Ramon  
Iribar, Xabier  
Lekuona, Juan Mari  
Lopez Etxezarreta, Pedro  
Mendikute, Jose Antonio  
Torrealday, Joan Mari  
Txurruka, Jesus Mari

JAKIN

800 pta. urtean. 250 ale

Eskabideak eta harpidetza:  
Cuartel, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)  
Tfno. (943) 65.11.06

# SUKALDERAKO SALTSAK



## BARATXURI ZOPA


6 lagunentzat beharko dituzu: Baratxuriak (Zortzi atal), salda egiteko pastila bat, Olioa Bipermina. Biper txorizero bat. Ura. Ogi zatiak.

Zati ezazu ogia. 400gr.rekin nahikoa duzu. Zati itzazu ere baratxuriak. Zati ttikietan. Ipin olio pixkat kazpel edo lapiko batetan eta doratu bertan ogi zatiak eta baratxuriak. Doratzen hasten direnean erretira itzazu eta ipin lapiko luze batetan. Ogiak erretzean, olio asko jaten du horregatik olio gehitu beharko duzu. Ogiak eta baratxuriak ez dituzu erre behar, doratu baizik. Erretzen direnak bota itzazu, gustu txarrak ez emateko.

Ogi eta baratxuri frijitu guztiak lapiko luzean daukazunean, bi litro ur, biper txorizeroa eta pastila bertara botako dituzu eta ordu laurden bat egosten utziko duzu. Azkenean bipermin pixkat botako diozu. Zopa honek ez du saldarik asko eduki behar. Benetako baratxuri zopa, lodi-lodia izaten da.

On egin





Ordizia, Urtarrilak 29

Adiskideok:

Hemen igortzen dizuet beste mustra prezios bat. "DEIA"n azaldua! Oraingo honetan ez duzue "Asta belarrietarako" egiten. Beldur naiz, baita, ez ote diren laburregi gertatzen honelakoentzat. Agian "Elefante Belarriak" sortu beharko dira...

Eta DEIA aipatu dugunez, guztiak esan behar. Ez baita DEIArena bakarrik. Gure prentsa "bilinguea" egiten ari zaigun lana ez da makala, ez. Hala ere mese-degarri den ala ez ikusi behar. Garbi dagoena da, une honetan, "bilingue", elebidun izateko dena falta zaiela, eta beste prentsa bezain erdalduna dela. Beste guztia gezurra da, eta jendea enganatzeko bide bat. Bukatzeko atzo lagun batek aipatzen zidan slogana berraitatuko dizuet nik:

"EGIN DEZAGUN EGIN,  
BAINA, MESEDEZ, EUSKARA-  
RIK EZ DESEGIN".

A. Eskisabel

Zuzendari Jaunorri:

Erregutzen dizugu zeure al-dizkariaren postasailean ondoko oharra argitara dezazun.

1978ko Urtarrilako 22an Bilbon bildu zen BIZIA, Euskal Herriko Biologoek Elkarte, bere Batzarre Nagusian eta gaur egun aurrera daramaten Nuklear indarrari buruzko Planen ondorioak kontuan hartuz, eta bere zeregina Naturaren Defentsa eta Konserbazioa delarik, Plan horien aurka agertzen da Herriaren eta Ofizial Erakundeek aurrean. Eta are gehiago, Herriak sarritan adierazi eta oraindik ere adierazten ari den gogoaren aurka egiten baita. Konkretuki eskatzen duena zera da: gaur egun eraikitzen ari diren Lemonizko Zentralaren berehalako geldieraztea.

Bilbo, 1978ko Urtarrilako 22  
BIZIAren Batzarre Nagusia.

ETXEPARE EUSKAL KULTUR  
ERAKUNDEA

Altsasun, kaputxinotan, Euskal Herri osora hedatu nahi duen Erakundea sortzeko, biltzen joan diren Elkarte eta taldeak, Urtarrilaren 21.an egin-dako bileraren akta (agiria).

Bilduak:

ELHUYAR  
U.E.U.-U.Z.E.I.  
ARANTZADI  
DEIA-EGIN  
ARABAKO IKASTOLEN  
ELKARTEA  
NAFARROAKO IKASTOLEN  
ELKARTEA  
BIZKAIKO IKASTOLEN  
ELKARTEA  
EUSKALTZAINDIA  
GIPUZKOAKO IKASTOLEN  
ELKARTEA  
JAKIN-EUSKAL IDAZLE-  
EN ELKARTEA  
ALFABETATZE EUS-  
KALDUNTZE KOORDI-  
NAKUNDEA

Berandu xamar bada ere, eta informalki azken orduraino ez genekielako, eguraldia zela ta, bilduko ginen edo ez, hasiera eman zitzaion bilerari, azken batzarra ezkerro izan diren zenbait berri, iritzi eta abar komentatuz.

Azken bilerako akta irakurtzen da, baiezkoa ematen zaiolarik. Ondoren, eta, alde batetik eta bestetik baiezkatzen zirelarik, honako puntu hauek eztabaidatzen dira batzartuon artean.

Sekretaritzak: Kultur erakunde hau, nolabait, eta nahiz guztion ideia izan, azken aldi hontan Nafarro-n jaio den asmoa izan da. Beraz, eta, Nafarroan Erakunde honen beharra nabarmena denez, sekretaritzak, Iruinean egon behar

duela da iritzi nagusia. Honek, Nafarroako arduradunei lan handia suposako diela, adierazten bada ere, guztiok, eta lana banatuz besterik ez bada, bulegoa Nafarroan mantentzea onartzen da.

Euskaltzaindiko ordezkariak, Iruinean Euskaltzaindiaren bulegoa eskaintzen du, oraingoz hura erabili dezagun. Beraz, hau izanen da.

Delegación Euskaltzaindia, -  
Cámara de Comptos.

Prentsaurrea: Eztabaidatzen den bigarrén puntu nagusia hauxe. Hasieratik, s gure prentsa, euskal prentsa erakunde honen barrenean ikusi dugu, prentsaren eragina herrian, neurri ezinezkoa delako. Orain arte bileratan partaide izan direnak, ez dira berri emateko deituak izan, baizik, eta partaide izateko mugimendu hontan.

Hau honela, hamabost egun barru Batzar bat egitea proposatzen da, Euskal prentsa guztiarekin, esku artean daramagun proiektu hau ezagutarazteko, eta era berean, heuren iritzia ahal den zehatzena ezagutu dezagun.

Bestalde, batzar hontara, JAKIN eta honen antzeko hilabete-kariak, ez dira deituak izanen, informazio lana ez den, beste zeregin bat dutelako, hauek, beste sail bat osotzen dutela uste baita.

Gai ordena:

1. Prentsaren egoera
2. Elkargo hontan duten zeregina.

Izena: iadanik, eta bilera batzuk eginak ditugunez, kultur Erakunde honek bere izena behar duela pentsa da, eta azkenean, danok onartzen duten eta proposatua izan den Izen-Deitura finkatzen da.

**"ETXEPARE" KULTUR ERAKUNDEA**

Nolabait, izen honek, Nafarroan jalo den ideia hau goستن du, lehen Euskal Idazlea eta Nafarra, ETXEPARE ospetsuaren izena erabiliaz.

- Bizkaiko Irakasle Elkarte-ko ordezkariak, eta aurreko bileratan erabakitakoari jarraituz,

bere sailaren azterketa egiten du.

Denbora aurrera doala ta, ez da beste sail edo sektoreen aurkezpenarekin jarraitzen, aurreragoko utziaz. Hala ere, Bizkaiko Irakasle Elkarteak proposatutako puntuak kontuan hartzen dira.

- Kultur Erakunde honi sail bakoitzak bere baietza eman.

- Herrian zabaldu eta baita alderdiei ere.

- Erakundearen egituraketa.

Eta honekin amaiera ematen zaio bilerari, urrengorako lan programaketa puntu hontan zehazten delarik.

- Sektore bakoitzaren alternatiba.

Prentsari komunikadua: euskeraz bakarrik egitea erabakitzen da eta honela dio:

**"ETXEPARE" EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA**

Altsasuan bildurik, Urtarrilaren 21ean, Euskal Alfabetatze-Euskalduntzea, Euskaltzaindia, Unibertsital saila, Irakasle saila, Ikastolen Federakuntzak, eta euskal prentsa eta aldizkariak, agiri hau ematen dute:

1- Kultur arloan Euskal Herrian lanean ari diren talde guztien bateratzearen behar larria ikusten da.

2- Elkarte guztion lokarri izanen den erakunde bat sortzea erabaki da.

3- Erakunde honi "ETXEPARE" Euskal Kultur Erakunde, izena eman zaio.

4- Harreman hauk bideratzen joateko, Nafarroan izendatu da idazkaritza denen onarpen osoarekin.

5- "ETXEPARE" Euskal Kultur Erakunde osatzen dute sektore bakoitzak autonomia osoa du, eta bakoitzak bere barne egitura antolatuko du, eta "Etxepare" Euskal Kultur Erakunderako ordezkaria izendatzea bere egitekoa izanen da.

6- Oraingoz, zuzenbidea hau izanen da: Euskaltzaindiaren Nafarroako Ordezkaritza.- Cámara de Comptos-IRUINEA.



## LAIA-EZKO ZENBAIT MILITANTEREN KOMUNIKATUA

EGINi bidali ondoren, parte esaldi baino ez zuelako argitaratu, zuei bidaltzen dizuegu orain euskal irakurlearen jantzerako.

"Egunkari horretan 78-1-12an agertutako oharri buruz, ondokoa jakinarazi behar dugu: (1)

1.- Aspaldi honetan, Ezkerreko erakundearen programak eta alternatibak manipulatuak eta baztertuak direla ikusten dugu, prentsako eta komunikazio medioen komunikatuetan.

2.- LAIA-EZ gure erakundearen kasu zehatzean, erakunde anarkista edo libertari bezala etiketatzen gaituzte, era askotako interes politikoei jarraituz. Eta kalifikatibo oker hori bai erreformismoaren aldetik (Euskadiko Ezkerra, maoistak, HASI, e.a.) eta bai ASKATASUNaren antzeko kolektiboaren aldetik, bere Mikel Orrantia bontzoarekin, egozten zaigu.

3.- Gezurra da LAIA-EZ erakunde libertari bat denik, Mikel Orrantiak esaten duenez. Are gehiago, gure erakundearen idatzi gehienetan gogorki kritikatzeko anarkismoa bere esentzia idealizatzen da.

4.- Mikel Orrantiak positiboki daki LAIA-EZek ez duela libertari izaerazko idatzi bakar bat ere. Libertari edota anarkistazko edozein kalifikatibo teorikoki eta praktikoki errefusatzeko dugula jakin ahal izan du Mikel Orrantiak, Bilbon erakunde burkideekin izandako kontaktuaren bidez.

5.- Nazkatu gaude pertsonalismoez eta alde guztietan agertzeko antsidunez, beren nortasun hertsia eta pobrea jarritz iraultzaileen eta langilearen interes kolektiboaren aurrean.

6.- Publikoki deitzen dugu Mikel Orrantia, LAIA-EZko oraingo egoeraren idazki erreprezentatiboan bidez, beronek erakunde "libertari" bezala nahita kalifikatzen duena frogatzeko. Derrigorrezkoa denez, ezin baldin badu, ukatu dezala exijitzen diogu, medio berdinak erabiliz.

7.- LAIA-EZEN barruan erakundetzearen eztabaida bat jazotzen ari da, eta beronetan jarrera espontaneistak eta segidistak agertzen badira ere, hortik LAIA-EZ osoa libertaria denik izatera alde galanta dago, erakundearen konstantea marxista iraultzailea izan eta baita.

8.- Mikel Orrantiaren okerra bere interes politiko bereziei dagoikiela uste dugu, LAIA-EZEN anarkismoaren arrunt uste faltsua sendotzeko, alde batetik, eta bestetik, Euskal Herrian pentsaera libertariaren prestigio eskas logikoa handitzeko. Honen froga bat Bizkaitiko Bateratze Asanbladariaren zentzua, mamia eta geografitik kokatzearen nahaskerian dugu; eta beroni buruz Bateratzea osatzen dugunok egin genituen argitasunak EGINeko lokaletan izandako prentsaurrekoan, aipatu egunkariak eta egondako gainerako komunikazio idatzizko medioek oraindik ez dituzte argitara eman.

(1) "... organizaciones libertarias vascas, como LAIA-EZ."

Carmelo Etxebarria



D mailako irakasle titulurako ikastaroa

E.U.T.G.-ko Filosofia eta Letretako Euskal Filologia Sailak ikastaro bat eratu du Euskaltzaindiaren D mailako titulua atera nahi dutenei zuzendua, edo, nolahi ere, euskara gehiago landu nahi dutenei.

Klaseak larunbatetan izango dira, goizeko 9etatik ordubata arte, E.U.T.G.-n, egitarau honen arabera:

- Azterketa paradigmakoa: Morfologia: Patxi ALTUNA
- Azterketa sintagmatikoa: Sintaxia: Patxi GOENAGA
- Idazketa, Itzulpena, Hiztegia: Felipe YURRAMENDI
- Euskal Literaturaren Historia: Andu LERTXUNDI
- Euskararen didaktika: Zenbait irakasleren artean.

Ikastaro honek Otsailaren 18an hasi eta Ekainaren 10 arte iraungo du.

Matrikula ordaina: 3.000 pezeta.

Izena emateko eta xehetasun gehiagotarako: Filosofia eta Letretako Idazkaritza.

E.U.T.G. - Mundaiz  
Tel.: 27 31 00  
Donostia

Ikasle kopurua, mugatua.



## EUSKO IKASKUNTZA ELKARTEAREN BERRITZEA

Elkarte horren bazkide zaharren arteko azken batzarrean erabaki bezela, 1936'gn. urteko Batzordearen lagunek (Barandiaran, Garate, Irigaray, Irujo, Lekuona eta Yrizar jaunak) bein beineko beste lagun batzuk izendatu dituzte Elkartearen lanbide-tara lotzeko, berrogei urteko ixil-aldiaren ondotik.

Proposatzen diran izenak hauek dira:

Barriola, Inazio - Botella Altube, Vicente - Busca Isusi, Lurran - Celaya, Adrian - Caro Baroja, Julio - Chillida, Eduardo - Davant, Jean Louis - Gohieneche, Eugène - Goti Iturriaga, Jose Luis - Idoate, Florencio - Jimeno Jurio, Jose Maria - Laborde, Manuel - Lacarra, Jose Ma. - Lafitte, Pierre - Loidi, Jose Antonio - Llanos, Armando - Manterola, Ander - Mesanza, Bernardo - Mitxelena, Koldo - Orbe, Mattin - Ruiz de Urrestarazu, Imanol - Salaberry, Etienne - Urquijo, Juan Ra-

mon - San Martin, Juan eta Villasanté, Luis (Euskaltzaindiaren ordezkariak) - Irigaray, Jose Angel (Aranzadi elkartearen ordezkaria) - Lan-idazkaria: Zumalabe, Agustín.

Horietaz gain izendatzeko gelditzen dira lau Diputazionetako ordezkariak.

Bein beineko Batzorde honen gaurkotu behar ditu Eusko Ikaskuntzaren egitekoak eta egiturak, bere lanak jarraituko ditu batzarre orotar bat arte eta han izendatuko dira (edo baietsiko) aurrerako Batzordeko lagunak, bi urtez bein berritu beharko direnak, oi bezela, demokratiko moldez.

Batzorde honen lagun batzuk, joan dan Urtarrileko 16'an bildu ziran Gipuzkoako Aldundiko Julio de Urkijo Liburutegian, Barandiaran, Jose Migel jauna buru zala. Hartan azaldu ziran egiteko diran lehenengo lanpideak, baita joan den urte horietan abiatu izan diran euskal kulturazko elkarteak laguntzeko eta eurekin batean lan egiteko dauzkan asmoak, lehenago ere Euskaltzale Bazkunen Elkarte dalakoarekin egiten oi zuen bezela, hauek beregain eta azke geldituz euren arteko koordinaketaren barrenean.

Bestalde, zenbait presuna ospetsu aipatu ziran ohorezko bazkide bezela izendatzeko.


Azkenik, esandako lagun horien artean, Batzorde Eragilearen lagun bezela egitekotan (lanbideko eta antolabidekoak) abiatzeko, izendatu ondotik.

Bein beineko batzorde honen aldian behingo bilkurak izango ditu lanpideak jarraitzeko eta berriak abiaraztekoan.

Agian laster argitaratzen asiko da beinolako Boletin aldizkaria, bertan aldiko liburu eta agerkiaren Bibliografiak azaldurik. Bai eta ospe aundiko Revista Internacional de Estudios Vascos hura ere berpizteko asmoa ba da.

Oroitarazi nai dugu bazkide berrien txartelak eta Elkartearen beste edozein xehetasunak jakiteko jo daitekeela Donostian dagon Idazkaritzara, Gipuzkoako Al-  
dundegi-Diputazionean.

# ANAITASUNAREN OHARRA



Etxe honetan ditugun zenbait arazo konpon-  
tzeko asmoz erabaki konkretu batzu hartu izan di-  
tugu. Irakurle guztiek jakin dakizue zenbaitetari-  
no ahula den gure egitura, bai ekonomikoa eta bai  
administratiboa. Beraz arazo hauk uztartu nahirik  
eta pentsatuz epe luzera gure irakurleentzat hobe  
izanen dela, erabaki dugu gure fitxa guztiak erregu-  
larizatzea. Honela bada, eta aurrez jakinik hainbes-  
te aldiz molestatzen zaituzteguna beste batetan egi-  
teak inportantzia gutti izanen duelakoan; eskatzen  
dizuegu gutun batez edo eta telefonoz:

- 1) Egina duzuen harpidetza berriro baieztatzea, es-  
pezifikatuz zuen helbidea eta bankuko kontu ire-  
kia.
- 2) Etxea aldatu baldin baduzue helbide berria ko-  
munikatzea.
- 3) Ez badituzue erregularki gure zenbakiak jaso-  
tzen, hau ere komunikatzea, zeren Posta eta bana-  
keta dela eta hainbat istilu larri baititugu.

Azkenez, eta, barkamen berriro eskatuz zera  
ere diogu, hots, bi hilabetez —lau zenbakitan— irau-  
nen duela ohar honek Anaitasunako horrialdeetan,  
geroztik berririk espresa ez dutenei harpidetzako  
txartela kendu egin beharko diegu. Noski, esan be-  
harra dugu ere aurtengoa pagaturik dutenei ez zai-  
la fitxarik kenduko, baina hala ere komeniko litzai-  
guke arestian esandakoa konplitzea.

Beno, hori zen guztia. Gu ere krisisean gara.

Bete ezazu ondoko hau eta postaz bidal

Harpidetzari jarraitzen diot

Bai

Ez

Zaharra \_\_\_\_\_

Helbide

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Berria \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Bankuko zenbakia  
Harpidedunak egin ditzakeen oharpenak

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

# GURUTZEGRAMA


6.

## 6. ZENBAKIA


### LUZETARA

1. Zuberoako ekintza honentzat, lau lagun eta baso bat ardo behar dira (2 hitz).
11. Garbi-garbi (diminutiboa).
12. Gaitz.
13. Ahi
15. Dokumentu.
16. "Nik ez ---- amets handirik".
- 17, 19, eta 46. Euskal migrapenarengatik, P. Lhande-k hau esan zuen: "Euskaldun jator bat izateko, hiru gauza behar dituzu: euskal deitura bat, euskara, eta ----" (3 hitz).
19. Ikus 17.
20. Trafiko seinale bat.
23. Abade.
24. Ikara, laztasuna.
26. Plural hurbilaren atzizkia.
27. Modu, gisa.
29. Erdi (hitz elkartuetan).
30. Mikel Laboa-ren amona nola doan (hitz berretua).
32. Resurrección Maria ---- Azkue.
33. Gizonezko.
34. Txikia-ren inzialak.
35. Golda ----, aitzineko Israel-go leaderra.
36. Ez!
38. Laxoa, arduragabekoa.
40. " ---- Bizi Naizen Lurrean".
41. Zabaldur (infinutiboa).
42. Bi (erromatar zenbakitan).
43. Germanio (symbolo kimikoa).
45. Euskalki bat (inzialak).
46. Ikus 17.
49. Euskaltzaindiak A, B, eta D 'ematen ditu (laburpena).
51. Arrain hartzeko tresna bat.
52. ---- Cairo (erdaraz).
53. Hibai bat duen lur emankor.
55. Buru ---- (tonto).
57. Momentu honetan (ipar aldean).
59. Entzun (erdal infinitiboa).
60. Zein pertsonaren?
61. ---- izan (ihardun).

5.



2. AURREKO ZENBAKIAREN OSAPENA



Egilea: Larry Trank

62. Martxo (bizkaieraz).
64. Hestura adierazten duen oihu bat.
65. Kasta, arraza.
66. Anai- ----, gizonaldeko erakundea.
67. Baroja-ren kondua edo Lete-ren kanta.

### GOITIK BEHERA

1. Gurekin (bizkaieraz).
2. Aspertuta.
3. Dut (Erronkariko euskaraz).
4. Afaldu ondoko edari bat.
5. Lehen euskal kanta-taldea (3 hitz).
6. Bihotzaren soinua.
7. Bizkaieraz, 'deusta'; lapurteraz, 'daut'; euskara batua, ----.
8. Galdetzeko partikula.
9. Londres-en, ---- hau da: libra batean 144 pezeta.
10. Ongailu min bat.
11. Euskaldun berri, hiztegi-egile, eta euskalari (izen osoa) (2 hitz).
14. "Gu gira Euskadiko ----" (M. Labeguerie) (2 hitz).
18. Ez gehiago, ez gutxiago.
21. Pierre ----, "Etxahun".
22. "---- bezala itsasoan".
25. Diru lapurtu (infinutiboa).
27. Kontrako ekintzak.
28. Hotz gehiegi adierazten duen oihu bat.
31. Umea sortuko duen emakumea.
37. Klarki.
39. Metalezko makila.
44. Elkartu, lotu.
47. Musu (haurren hitz bat).
48. Emakumezko.
50. Austria-ren herrialde bat.
54. "Maite dut nik sorlekua, ---- aitek hautatua".
56. Jup., Sat., Uran., ----.
57. Baliokide.
58. Ez egiazko (laburpena).
61. Kuba, Puerto Rico, etab. (laburpena).
63. Eus- edo erd-.
65. Bizkaiko herri bat.



Agortu ezineko harrobia da, dirudienez, gu-  
rea. Astabelarritan behintzat.

Lagun batek emanik, hemen agertzen dugu  
Bilbo Zaharreko dendari batek DEIA (78/1/29),  
publizitate egiteko asmoz, argitarazi zuen txartela.

Benetan sinestezina da hainbeste oker —bo-  
rondate txarrik gabe— egin ahal izatea. Kontua lo-  
tsagarriagoa da, gainera, Bilbo Zaharrean holako  
astakeriarik egin beharko ez litzatekeelako, bertan  
Euskal Akademiaren etxea egonik, edozein galde-  
ra erantzuteko beti prest.

DEIAkoek, bestalde, holako testu pitxiak ar-  
gitaratu baino lehenago, nik uste, iragarleei nolabai-  
teko abisua eman beharko liekete, euskararen eta  
euskaldun guztion onerako.

- \* MES BLANCO  
YLLEA ZURIA.
- \* A PARTIR DE MAÑANA LUNES  
BIERKO AZTELENA'TIK AZITEA
- \* GRANDES REBAJAS  
JATZIKERA AUNDIAK
- \* EN SABANAS  
YZARA'TAN
- \* ENORME SURTIDO  
ITZELEZKO ORNITUAK

**ANTONIO  
GUISASOLA**  
Artecalle, 26. Bilbao

# Goazen MUNDUKO FUTBOL TXAPELKETARA (Argentina-Brasil bisitatuz) CAJA LABORALAREKIN



**CAJA LABORAL POPULAR**

**ENKIDE AURREKIA**


100 LAURDENTZAT ZOZKETA

Informa zaite gure etxeordeetan



Argentina 78

# Gipuzkoa besterik ez dugu gogoan hargatik Probintzial da gure izena.



Gure probintziaren aurrerabidean gero eta lankide sutsuagoak izateko prest gaituzu: bai nekazaritzan, bai industrian, bai merkatalgoan, bai komunikabideetan,... edozein alorretan. Gipuzkoan bizi maila goratzeko bidea gerta litekeen guztian. Probintzial izena daramagu eta gipuzkoar aurrerabidearen alde ari gara ahaleginetan beti ere.



**GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA**